

Berriketan

Debako herri aldizkaria


271. alea - 2022ko martxo



Igon Mancisidor

Kirolaria

**Gogotsu udako
erronkari begira**




**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

REALITATERA
**EUSKAL
OKELA**

CASINO DE VALLEJO
DE CALIDAD
DEL PAGO MEXICO
EUSKO LABEL



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)




50 URTE

**BURU - ZURI
Taberna**

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

DEBA HORTZ KLINIKA



Hondartza kalea, 20 behea - 20820 - Deba
Tel. 943 19 28 19 | info@debaklinika.com

Odontologia orokorra
Kirurgia
Inplanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (ikusezina)
Haurren odontologia

*Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

BOHÈM
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE. BOHEM@GMAIL.COM

f i



ARENA BAR



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

f i

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00ETATIK AURRERA
PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAR



271. alea - 2022ko martxo

AURKIBIDEA



ELKARRIZKETA | 8
Esti eta Mikel Markez
Deban
aurkeztuko duten
Azal Berritzen diskoaz



ELKARRIZKETA | 10
Igon Mancisidor bere
hurrengo erronkez
eta mendiak pizten
dion grinaz berrikeretan



KORRIKA | 12
Korrika datorrela-eta
herriko elkarteek
elkarlanean
sortutako egitaraua



ALBISTEA | 15
Emakumeei egin die
aitortza Amaiak
Batek bere
75. urteurrenean



GEHIGARRIA | 17
Ekintzaitzeta hizpide
Ekinean
Debabarrean
gehigarrian (DKT)

Berrikeretan

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322
Aldizkariaren e-maila:
berrikeretan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com



Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-200

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berrikeretan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako-
en erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu
ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenba-
kia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berrikeretan@zuhatza.com
helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

LAGUNTZAILEAK:



DEBAKO UDALA



Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Informatika
Tresneria
informatikoa

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA
Tel: 943 19 22 63
www.atarideba.com

ieraenea
ekodenda

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

kutxabank

ENDANETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria 3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com


ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali berriketan@zuhatza.com helbidera.

Katamixarren basoa naturgunea

2021eko irailean arratsaldeetan (eskolaz kanpoko jardueraren formatuan), pedagogia berdean oinarritutako proiektu pilotu bat jarri zen martxan Debabarrenean. Jolas librea eta natura, nekazaritza ekologikoa edota animaliekiko harremana ahalbidetu eta beste hainbat balio sustatzen dituzenez, ama naizen aldetik, oso interesgarria iruditu

zitzaidan. Urte hasieran, beraiekin jarri nintzen kontaktuan, 2022an txikia apuntatzeko asmoz.

Lehenengo momentutik oso harreman ona sortu da gure artean, eta proiektuan kolaboratzeko aukera ere sortu zait. Noski, ezin ezetz esan horrelako proiektu interesgarriari.

Guraso, senide edo erreferente beza-

la proiektuan interesa baldin badaukazu, martxoan berriz ere zabalduko dituzte atak Elgoibarren. Esteka honetan aurkituko duzu informazio zehatzagoa: www.sites.google.com/view/katamixarren-basoa. Bestela, idatzi mezua katamixarrenbasoa@gmail.com helbidera. Edo galdetu niri zuzenean, nahiago baduzu.

Nora Aizpurua

Hipokrisia eta faxismoaren aurka



“Hipokrisia eta faxismoaren aurka”, hala du izena nire talde kuttunenetako baten abesti batek. Garai zailak datozkigu ingurura. Bizitzaren ikaragarritzko garestitzea (pobretzea esango nuke nik) ohiko gehiengo baten kaltetan, betiko gutxiengo baten mesedetan.

Gerrara ohitu zintezke, baina gerra egon badago... abesten dute orain dela 8 urte-tik Donbasseko eskualdean. Baita Siria, Yemen edo munduko beste hamaika txokotan ere, Ukrainan bezala.

Errefuxiatu europar eta azal txuriko-
ei atak zabaltzen dizkiegu, Mediterraneoaren beste aldeko-
ei atak itxi eta euren herrialdeak garbitzen ditugun aldi berean.

Bitartean faxismoa goraka doa. Errusian, Ukrainan, Polonian... baita gure gertuko bi herrialde okupatzaile-

tan ere. Demokraziaren izenean. Amen.

Gaur telebistak esaten duen guztia ez bairik gabe irensten dugu, herri honen hurbileko memoria galdu izan bagenu bezala.

Inbasio eta okupazio militarrek ahots ozenez deitoratzen ditugu, gure herriaren zati bat bortxaz eta militarri inbaditu eta okupatu zutela 500. urteurrena denean, eta egoera berean jarraitzen duen honetan.

Lander Aznal

TaxiAlain Deba

LIZ.-ZK.: 3

WiFi

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

Berriketan .eus

albisteak iritziak agenda
mediateka komunitatea

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Janire & Maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | www.janiretamaitane.com

Ukrainarekiko elkartasun-emanaldia prestatzen dihardute herriko hainbat eragilek elkarlanean

Hilaren 26an (larunbata), Ukrainarekiko elkartasun-emanaldia eskainiko dute Aitzuri Abesbatzak, Debako Musika Bandak, Gure Kai Euskal Dantzari Taldeak eta Kalez Kale Txistulari Taldeak. Parrokiako Kooperazio Taldearekin eta Udalarekin elkarlanean antolatutako saioa 13:00etan izango da, elizako klaustroan (euria egingen badu, elizan bertan), eta ordu eta laurdeneko iraupena izango duela aurreikusit dute.

Hamar euroan salduko dira emanaldira-ko sarrerak eta irabaziaz Chernobil Elkartearentzako izango dira; martxoaren 25era arte Turismo bulegoan izango dira salgai, eta hilaren 26an bertan, goizeko 11:00ak aldera, elizaren atarian ere lortu ahal izango dira.



“Erradiazioa, eta orain gerra” lelopean, Chernobil Elkarteak Txernobylgo (Ukraina) baliabiderik gabeko haurrentzako eta euren familientzako laguntza deialdia ere egin du. Ekarpen ekonomikoa egin nahi dutenek kontu korrante

honetan sartu beharko dute dirua: ES62 2100 6491 1222 0003 6970. Deialdiaren inguruko informazio gehiago lortzeko, 670 419 078 telefono zenbakira deitu edo www.chernobil.org kontsultatu dezakete herritarrek.

Bestalde, azken asteotan bilketa egin da herrian, Ukrainara jana eta oinarrizko produktuak (arropa, sendagaiak...) bidaltzeko. Materiala Jartxa loradendan biltzen aritu dira eta deialdiarekin bat egin duten herritarren “eskuzabaltasuna” eskertu nahi izan dute antolatzaileek.

Ivan gure familiakoa da

Ivan Kononenko gure familiakoa da eta Deban ditu bere lagunak ere. Chernobil Elkartearen bitartez etortzen diren haur guztiak hemengo harrera-familien seme-alaba edo anai-arrebak dira. Guztiak dituzte bertako lagunak edo kuadrillak.

Ume hauek guztiak gerraren erdi-erdian daude Bielorrusiatik Kieverako bidean. Txernobyl inguruetakoa herrixkatan bizi dira eta une latzak pasatzen ari dira: negurako patata gordetzen duten sotoetan ezkutaturik, hotzetan, argirik gabe, kasu batzuetan ur gutxirekin edo gabe, tiro eta bonbardaketak entzunez...

Chernobil Elkartearen asmoa da bertatik ume eta familia horiek ateratzea edo behar duten laguntza bidaltzea. Horretarako giza korridore seguruak behar dira eta hori lortzeko Euskal Herriko beste elkarteekin elkarlanean ari da.

Hori guztia lortu ahal izateko dirua behar da eta horretarako ireki du Chernobil Elkarteak kontu korrante bat, nahi duenak bertan dohaintzak egin ditzan.

Ildo beretik, martxoaren 26an emanaldia egingo da elizan eta irabaziaz Chernobil Elkartearentzako izango dira; martxoaren 26-27ko asteburuan, era berean, udaletxe azpian bigarren eskuko azoka egingo da.

Debako Udalarri larrialdietarako 7.000 euroko laguntza eskatu diogu eta onartua izan da. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiogu.

Mila Osa (Chernobil Elkarte)



MANEX ASTIGARRAGA

Isileko esan-nahiak

Egunetik egunera badirudi gauzak ez direla aldatzen Deban. Astero-astero dena berdina dela herri aspergarriki hil honetan. Harik eta ohiko dirudien goiz batez hormek esan-nahirik badutela dirudien arte. Atzo ez zegoen, gaur badago eta ziurrenik bihar edo etzi desagertuko da berriz. Monotonoa haustura saiakera berri bat.

Esan-nahiak badu ezinegon bat atzetik. Askok ikusi ez arren, gure herrian ere kentzen zaie hautsa apale-tako liburu zaharrei. Batean edo bestean Afganistani buruz entzuten du dozena t'erdi belarrik edota Ukrainako gatazkaren beste kontaktuzun bat bilatzen. Elkar ia ezagutzen ez duen jendea borondatez batzen da, ez parrandarako, baizik eta balio-lanaren teorian, kapitalaz, askatasunaz... solasteko. Gazte batek edateko iturri berriak arakatzen ditu sarean astelehen arratsalde. Eta beste hainbat zirrikitu.

Ez. Ez da mamu bat. Existitzen da. Bizi baldintzak okerrera doazen honetan, badago gogoia bizi dugun mundua ezagutzeko eta horren funtzionamenduaren lege eta joerak ikasteko, eta, ondo bidean, horren aurrean posizio hartzen eta ekiten ere ikusiko ditugu gertukoak. Erreakzioak erreakzio, ausartak izateko garaia da. Aurrera egitekoa. Ez denboran, historian baizik. Hanka sartzera arriskatzekoa, eta sartuz gero, ateratzekoa. Koldarkeria kontserbadoreari eta erosoazle atzerakoiei entzungor egitekoa.

Bakoitzak ikusiko du zertan egikaritzen den dituen barne kontraesanen sintesia. Loa kenduko ez dionak, aldiz, badu beste aukera bat: indiferentzia.

Martxan da Errigoraren udaberriko "Oinak lurrean" kanpaina

Martxoaren 30era bitartean egongo da abian Errigoraren udaberriko kanpaina. Kanpaina honetan, oliba-olio birjina estra (bost litroka), arroza, pasta eta kontserbak (hamabi ontziko sortetan) eskatu ahal izango dira, ekoizlearen jatorrizko prezioan. Oraingoan lema *Oinak lurrean* izango da, asmo handiak dituzten arren, oinak lurrean dituztelako, hain zuzen ere.

Urtero moduan, Euskal Herriko bazter guztietara zabaldu da dagoeneko Errigoraren kanpaina. Elikadura burujabetza sustatu eta Nafarroa hegoaldean, euskara ofiziala ez den zonaldeetan, euskara indartzeko asmoz martxan jartzen den egitasmoa da hau.

Eskaerak martxoaren 10etik 30era bitartean egin ahal izango dira, www.errigora.eus webgunean edo, bestela, 848 87 12 23 telefonora deituta, eta Zuhatza Euskara Elkarteko bazkideek produktuak Deban jasotzeko aukera izango dute, maiatzaren 10ean Aldats pilotalekuan.

Abian da *Bastiñuixan*, kalean eta parkeetan euskararen erabilera handitzeko egitasmoa

Debako Udalak eta Urtxintxak "Bastiñuixan" izeneko egitasmoa jarri dute martxan. Kalean eta parkeetan euskararen erabilera handitzea du helburu. Egin dira dagoeneko lehendabiziko bi saioak; martxoaren 15ekoan, adibidez, hamarnaka ume aritu ziren bi adin-tarteetan Urtxintxako bi jolas dinamizatzaileen laguntzaz zumardiko kiosko parean. Martxoaren 29an eta apirilaren 5ean izango dira hurrengo saioak, eta leku berean egingo dira horiek ere (euria bada, Ifar kaleko eskolako patioan).

Bi programa eskainiko dira. Batetik, *Zabu Zibu* (16:30etik 17:30era); 3-5 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat. Helburua euskaraz jolastu ahal izateko tresnak eskaintzea da, beraz, behar-beharrezkoa da haurrak guraso edo helduren batekin joatea eta jolastea. Bestetik, *Txirrintxon* (17:30etik 18:30era); 6-9 urte bitarteko haurrentzat.

Egitasmoaren antolatzaileen esanetan, "jolasa, ekintza askea izateaz gain, ezagutzak oharkabean jasotzeko tresna ezin hobea da, hizkuntza barneratzeko

tresna, besteak beste. Alde batetik, hizkuntza formala lantzeko erabil daitekeen teknika da; baina, batez ere, hizkuntza ez formala sustatzeko da baliagarria. Hau da, euskara kalera ateratzeko modu bat da: abestiak, esamoldeak, hiztegia...".

Helburu nagusiak

Hiru helburu nagusi ditu programak; familiei eta haurrei euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzea, familiak eta haurrak euskararen inguruan biltzeko guneak sortzea, eta jolasguneetan euskararen presentzia areagotzea.



iritzia



KETXUS AMASORRAIN

Antonio

Kontatu zidaten aspaldi, Antzuolan ba omen zela Antonio izeneko mediku bat. Joaneko herrixketako mediku horietako bat zen Antonio; kontsulta bere etxean, kontsultako atea edozeinentzat eta edozein ordutan zabalik. Bera zen herriko pediatra, geriatra, traumatologo, ginekologo, psikologo... Mediku ona izateaz gain, pertsona ona ere bazen gure Antonio.

Antzuolatar asko eta asko ziren Antonioren bezero, eta haren zerbitzuak jaso ondoren ordaintzeko ueña iritsita, hortxe hasten ziren Antonioren komeriak, diru-kontuetan sarritan gertatu ohi den antzera. Era guztietako arazo ekonomikoak azaleratzen ziren Antonioren kontsultan; benetakoak batzuk, asmatutakoak beste asko. Antonio oso mediku ona zen baina oso finantzari eskasa eta ez zeukan "Cobrador

del Frac" izateko maliziarik, ezta bokaziorik ere.

Antzuola oso herri txikia izanik, egun batean bai eta hurrengoan ere bai, Antonio zordunekin gurutzatzen omen zen kalean, eta hain zen "Cobrador del Frac" txarra ezen zordunekin aurrez aurre topo egiteko lotsagatik, espaloia bestaldera zeharkatzen omen zuen.

Antonio duela urte dezente zendu zitzaigun, baina bere izpirituak bizirik darrai; Zenbat aldiz ez ote dugu Antonioren arimarekin bat egin? Jakin ondo ari garela, jakin zuzen gabiltzala, ziur egon aurretik datorrena dela bide okerretik dabilena eta hala eta guztiz ere pareko espaloira zeharkatu, zordunarekin trink ez egitearren, oker dabilenari geure oniritzia emanez lotsati eta burumakur.

Antonio, ez da nahikoa pertsona eta mediku ona izatea.

Saharako haurrentzako harrera-familia bila dabil Oporrak Bakean, udan bi hilabeteko egonaldia egiteko

Azken bi urteetan ezinezkoa izan bada ere, aurten berriz ere jarri dute martxan Oporrak Bakean programa eta Saharako umeak Euskal Herrira etorri ahal izango dira udan, bi hilabeteko egonaldia (San Juanetatik abuztu bukaerara arte) egitera. Hori hala, haurrei harrera egingo dieten familien bila dabilta elkarteko kideak. 52 ume inguru ekarri nahi dituzte Euskal Herrira, eta, aurtengoan, 2014an jaiotako umeak etorriko dira, zortzi urtekoak.

Martxoaren 27ra arte eman dezake- te izena familiek eta elkartearen webgunean aurkituko dituzte horretarako beharrezko dituzten jarraibideak eta informazioa (www.oporrabakean.eus).

Programaren arduradunek diote- nez, "pandemiak mundu osoa jarri du hankaz gora, baita herri sahararraren egunerokoa ere. Pandemiaren ondorioz, 2020an eta 2021ean bertan behera geratu da Oporrak Bakean. COVID-19ak saharar errefuxiatuen kanpamentuetan gogor jo du, baina, horrez gain, 2020ko azaroaren 13an su-etena bertan behera geratu zen eta, ondorioz, solda- du sahararrak gerran daude".

Dagoeneko hainbat urte pasatu dira haur sahararren lehen taldea kanpamentuetatik Euskal Herrira uda pasatzera heldu zenetik. Ordutik hona, Oporrak Bakean programaren koordina- zioa aldatzen joan da, baina proiektua abiatzeko ikusi ziren arrazoiek indar- rean jarraitzen dute eta, arduradunen esanetan, haurren harrera "inoiz baino

beharrezkoagoa da orain".

Izan ere, programa honen bitartez, haur sahararrek uda basamortutik eta errefuxiatu-kanpamentuetatik kanpo pasatzeko aukera dute, eta familia euskaldunek herri sahararra lagundu eta beste kultura batekin elkarbizitzeko aukera.

Programaren helburuak

Oporrak Bakean-en xedea da urtero, udako bi hilabeteetan zehar, Saharako haur errefuxiatuak familia euskaldunetan edo udalekuetan harreran hartzea.

Horrela, umeak basamortuko udako baldintza gogorretatik aldentzea bilatzen dute (50 gradu baino gehiagoko tenperaturak, are-ekaitzak...). Gainera, elikadura orekatu baten bitartez umeen osasuna hobetzea dute helburu, baita oinarriko osasun-azterketak egin eta kanpamentuetan antzeman edo tratatzeko zail diren gaitzak artatzea ere: ikusmen eta entzumen arazoak, hortzetako gaitzak...

Bestelako helbururik ere badu programak. Arduradunen esanetan, hain zuzen, "haurrei kultura eta hizkuntza berriak eta errefuxiatu-kanpamentuetako ez den beste errealitate bat ezagutzeko aukera eman nahi diegu. Gainera, Mendebaldeko Sahara eta herri sahararraren egoeraren bueltan euskal herritarrek sentsibilizatzea eta gizarte saharar eta gizarte euskaldunaren arteko harremana sustatzea ere bilatzen du egitasmoak".



NAHIA EGUSKIZAGA

Oinarria

Eguna argitu baino lehen esnatu txikienarekin eta zorte pixka batekin handia esnatu baino lehen eta txikia aspertu aurretik kafea prestatu gosaldurapegia garbitu besapea aukesea txorrotan ere bai eta dena ondo badoa dutxa txiki bat (marabilla) zu ere prestatuko zaitut txiki hankartea sikiera ur azpian pasa eta jantzi. Esnatu da handia eta ahoan du gosariaren erreklamo urdutea da hiru urteko ume batek eskatzen duena eskatzen du ya! Hortxe dago gosaria gutxiegi gehiegi beroegi hotzegegi dago eta joe maitia hasi jaten gosari ederra da eta! Hasi da ba gosaltzen azkenean eta bera entzun bitartean sukaldia txukundu gela aireztatu oheak egin arropa aukeratu labadora jarri. Bukatutakoan zu garbitu jantzi eztabaidatu konpondu eskolarako prestatu mukiak kendu eta badoa aitatxo zurekin eskolara. Txikia hamakan niri begira jarri tronuan eserita nagoen bitartean (zein ederra den konpartitza). Txikia loguretuta dago titia eman goxo jarri gorputzera estutu kantatu goxatu lokartu da. Erosketak bazkaria arropa zintziliku garajea pagatu zerraila konpondu etxea garbitu hamaiketako prestatu praka josi mahaia jarri zaborra bota zu eskolatik jaso landareak ureztatu besotan zaitudala bazkaldu parkean jolastu titia txikia lokartu etxera heldu afaria dutxa zure hatzazkalak moztu (ostras igual nireak ere) ipuina eta horrela iritsi da gaua ohera goaz eta titian zauden artean liburua hartu dut baina begiak itxi zaizkit. Zu titian lo liburua seaskan zain.

Ametsetan izeberg bat ikusten dut itsasoan igeri, eguzkiak bere punta distiratsuago egiten du are eta ageriago utziz. Boteretsua dirudi: zorrotz, zuri, ezinbesteko, garrantzitsu. Beste guztia ur azpian dago. Zatirik handiena. Oinarria.



Esti eta Mikel Markez: “Beti berrasmatu behar duzu zeure burua, nolabait azal berritu; hortik diskoaren izenburua”

Bada urte mordotxoa Mikel Markez herrian izan genuela; ia 25, eta berak ondo gogoan du. 90eko hamarkadan *Eta etorri egin zait* lehen diskoarekin arrakasta itzela izan ostean, beste hamaika disko argitaratu ditu Markezek, baita kolaborazio ugari egin ere. Hala ere, azkenaldi honetan, bere izena alabarenarekin batera ikusi dugu sarri, izan ere, *Azal Berritzen* diskoa atera zuten 2020an elkarrekin, eta ordutik hara eta hona ibili dira kontzertuak ematen, eta, esan digutenez, oso gustura ibili ere, hain konpainia berezian. Martxoaren 25ean izango dugu guk ere beraien musikarekin gozatzeko aukera, Kultur Elkartearen.



Aurrera Altsasu kantarekin ezagutu zintuztegun askok elkarrekin; Facebook-en partekatu eta arrakasta itzela lortu zuen. Gero etorri zen diskoa. Nola sortu zen elkarrekin aritzeko ideia?

Esti Markez: Txikitatik entzun izan dut musika etxean, baita aitarekin kantatu ere, edozein lekutan. 2020ko itxialdira arte ez nuen abestirik sortzeko gogo edo beharrik izan. Gitarra hartu eta abestiak sortzen hasi nintzen eta egindakoa aitari bidaltzen. Berak proposatu zidan bost abesti eginda, berak beste bost egin eta elkarrekin diskoa ateratzea.

Mikel Markez: *Aurrera Altsasu*-z diozuna egia da; gauzak nola diren... batzuetan mobil txar batekin egindako grabaketa xume batek hilabetetako estudioko lanak baino arrakasta handiagoa izaten du; *kar, kar, kar*. Hor ikusi genuen lehendabizi jendeari gustatzen zitzaizola kantatzen genuena.

2020aren amaieran kaleratu zenuten *Azal Berritzen* diskoa. Zuentzat behintzat emankorra izan zen urtea...

E.M.: Itxialdiak sormenerako denbora eman zigun eta behin kankak osatuta diskoa kaleratzeko pausoa eman genuen. Ondoren etorri ziren kontzertuak.

M.M.: Egia esan ni *Biribilean* diskotik nentorren, nire zenbait kanturen laburpen disko bat zen, zeinetan Estik ere parte hartzen zuen. Hori 2019aren amaieran izan zen eta ia ez nuen kantaldirik egiteko

aukerarik izan. Beraz, 2020-2021ak aurreko urteko uzta jasotzeko aukera eman dit.

Zein azal berritzeko aukera eman dizue lanak? Edo behar bati erantzuteko saiakera izan da, akaso?

M.M.: Diskoaren izenburuak horixe bera azaldu nahi du: egoerak aldatzen direla eta beti egon behar dugula aldatzeko prest, beti ez baitira garai onak izaten musikariontzat. Halere, beti sentitu izan dut hori behintzat arnas luzeko bizitzeko modu bat bezala. Beti berrasmatu behar duzu zeure burua, nolabait azal berritu.

“Esperientzia ederra ari da izaten musika elkarbanatzea; harreman ona dugu eta horrek asko laguntzen du”

Zer moduzko esperientzia ari da izaten ohol-tza gainean elkarrekin aritzea?

E.M.: Esperientzia ederra ari da izaten aitarekin musika elkarbanatzea eta asko ikasi dut bere ondoan; harreman ona daukagu eta horrek asko laguntzen du.

M.M.: Egia da hori! Elkarrekin ongi konpontzea ezinbestekoa da proiektu bat erdibana aurrera eramateko. Jende askore-

kin konpartitu dut eszenatokia, belaunaldi eta estilo desberdineko kantari eta musikariek, bertsolariek, idazleekin... Baina benetan da berezia alabarekin kantatzea!

90eko hamarkadan sonatuak ziren zure diskoak, Mikel. Zure begiek... Gaurko Mikelek zer du hartatik?

M.M.: Burua urdin du zait, kilo gehiago ditut... Baina kantari edo kantuak sortzen hasiberri hura bezala sentitzen naiz. Nire bizitza nahiko desordenatua da, nolabait unibertsitatean nengoenean bezala bizi naiz oraindik, *kar, kar, kar...*

Deban lehenago ere egona zara, Mikel, Tribuaren hitz galduak ikuskizunaz, Pako Aristirekin batera.

M.M.: Ederki oroitzen dut! Oso oroitzapen politak ditut. Ia 25 urte pasa dira eta nola aldatu den gizartea, musika... Garai hartan emanaldietan esaten genituen erdiak egun esanda kartzelan geundeko. Badago hura bezalako beharra...

Aurrera begirako proiekturik bai elkarrekin?

E.M.: *Azal Berritzen* proiektuari amaiera emango diogu ekainean eta udazkenean bakarkako ibilbideari ekingo diot diskoa kaleratuz. Epe motzean ez daukagu aurreikusita elkarrekin jarraitzea, baina, nork daki, gerora aukeraren bat izango dugu, seguru.

Huntza MIN sarien finalaurrekoetan



Josune Arakistain lasturtarra partaide duen Huntza musika taldea MIN musika independentearen sarietan hainbat kategoriatan izendatu dute.

2009an sortu ziren MIN sariak eta XIV. edizioa izango dute aurtengoa.

Hautagaiek izena eman ondoren, publikoak bozkatzeko dituzten semifinalista izango diren taldeak; hurrengo fase batean, epaimahai profesional batek nominatuak eta irabazleak hautatzen ditu eta, azkenik, sari-banaketako ekitaldia egiten da. Apirilaren 27an banatuko dituzte aurtengo sariak, Iruñean.

Ezin ezer espero izenburuko lana abenduan kaleratu zuen Huntzak Mauka Disketxearen eskutik, eta lan horri esker da hainbat sariren hautagai: artista, albuma, sustrai-musikaren albuma, euskarazko albuma, bideoklipa, urteko kantua, letra originala, eta musika-produkzioa.

Maddi Astigarraga Bergara finalista izendatu dute Ilustraciencia sarietan

Ilustraciencia sarietara aurkeztu eta 40 laguneren artean finalista aukeratu dute Maddi Astigarraga Bergara. Ilustraciencia Zientzia eta Naturako Ilustrazioen Nazioarteko Sariaketa da eta Natur Zientzien Museo Nazionalak eta Komunikazio Zientifikorako Elkarte Katalanak antolatzen dute. 2009an hasi ziren antolatzen (hau du bederatzigarren edizioa) zientzia eta natura arloko profesionalen lana zabaltzeko, saritu eta laguntzeko asmoz. Sariaketa badu beste helburu bat ere, ordea, zientzia gizartera gerturatzea; horregatik, finalista suertatzen diren 40 sortzaileen lanekin erakusketa ibiltaria antolatzen dute, gero ikusgai izaten dena hainbat museo eta kulturgunetan. Horrez gain, erakusketaren



katalogo birtual bat ere sortzen dute eta ikastaroak, tailer eta abar ere antolatzen dituzte. Sariaketaren bi saridun nagusiek 800 euro jasoko dituzte.

Nerea Loiola "Landa emakumeak eta bizikidetza" sormen-lehiaketan saritua

Landa emakumeak eta bizikidetza sormen-lehiaketaren lehen saria lortu du Nerea Loiola Pikazak 25-55 urte artekoen kategorian.

Lehiaketa Landaola federazioa osatzen duten Gipuzkoako sei Landa Garapenerako Elkarte (tartean da Debemen) sustatzen ari diren *Landa emakumeak gara* proiektuaren baitan

dago. Gipuzkoako landa eremuko emakumeen arteko elkar-eraburua eta saretzea bultzatzea da proiektuaren helburu eta lehen urratsa du sormen-lehiaketa. Honen bidez, Gipuzkoako emakumeak landa eremuaren, bertako emakumeen eta bizikidetzaren inguruan hausnartzera bultzatu nahi izan dituzte.



MAITE RODRIGUEZ

1985eko abenturak

1985eko abuztuko arratsalde batean, amari afalordurako etxera etorriko zirela esanda, Keith eta Noel kalera irten ziren. Keithek hamar urte zituen eta Noelek hamahiru.

Txartelik gabe, trenean sartu ziren eta gero, nola edo hala, ferrian. Txartelak erakusteko esaten zieten bakoitzean, atzetik gurasoak txartelekin zetozela erantzuten zuten, eta aurrera jarraitu.

Ferrian ibili ondoren beste tren batean sartu ziren, Londresera bidean. Bertan, gizon batekin berriketan hasi ziren, eta gizonak Londres arrisku-tsua zela adierazi eta bere etxean lo egitea proposatu zien. Goizean, geltokira eraman zituen berriz. Eta handik Heathrow aireportura iritsi ziren gero. El Equipo A-ko M.A. (Mister T) ezagutzera joatea erabaki zuten. Aireportuan zehar bueltaka zebiltzala, New Yorkerako hegazkina ikusi zuten eta egun hartan bertan joatea erabaki zuten.

Berriz ere gurasoak atzetik zetozela esanda, hegazkinean sartu ziren biak. New Yorkera iritsi zirenean, polizia bati galdetu zioten ea hirigunera nola joan zitezkeen. Poliziak mutikoak etetik urruti eta bakar-bakarrak zeudela konturatu ziren, eta hotel batera eraman zituzten. Bost guardia ipini zituzten ihes egin ez zezaten eta hurrengo egunean bueltan bidali zituzten Dublinera.

Guraso eta kazetariak zain zituzten Dublineko aireportuan ongietorria emateko.

Benetako abentura izan zen hori, lerro hauetan kabitu ahal izateko pixka bat laburtuta. Hausnarketarako balio du, ezta?

Igon Mancisidor mendi-lasterketetako korrikalaria

“Egoera nahasi honetan kirola egiteak ondo sentiarazten nau, berdin zait gaez edo euritan”

42 urte ditu Igon Mancisidorrek eta CAF enpresan egiten du lan, Kalitate Sailean, baina naturan murgiltzea du afizio nagusi. Zazpi urtez eskubaloian aritu ondoren, triatloian hasi zen orain dela 20 urte. EAEko probak dastatu ostean, segituan Ironman distantziara egin zuen salto: Zumaia eta Debako Triatloi taldeetan, 10 proba luze burutu zituen Niza, Lanzarote, Enbrunman eta Ironcat-en (3,8 km igeri, 180 km bizikletan eta 42 km saltaka). Familia osatu zuen laster, eta horrek, norbere aisialdirako denbora mugatuta, mendi-lasterketen mundura gerturatu zuen. Jo eta ke dabil ordutik aldapan gora eta beheara Alpe, Pirinio eta gure mendikateetako eremu basatiei erronka joz.



Udarako gogor entrenatzen ari zarela entzun dugu, mendi-lasterketa luze bat prestatzen...

Gogor ez, baina bai Swispeaks (367 km eta 26000m+) abentura osatzeko oinarriak jartzen, 70-80 minutu egunero, aste-ro, urte osoan zehar. Gakoa hor dago, karga handirik ez sartu arren egunero zerbait egitean, pixka bat bakarrik bada ere.

2002an ekin zenion kirol-ibilbideari Urgazi Elgoibarko klubean duatloi eta triatloietan parte hartuz. Egun, mendi-lasterketetan zabilta. Zergatik aldaketa hori?

Familia osatzen hasteak norberaren denbora librea erabat murrizten du. Korrika egite soilak denbora gutxi eskatzen du eta beti atera daiteke tartetxo bat lan profesionala eta etxeko lanak ondo uztartuz. Mendia oso dibertigarria da lasterka egiteko; errepidea aspergarriagoa.

Mendiak omen dituzu gustuko, eta eremu basatiak, oro har. Horrekin batera, iraupenezko erronkak...

Distantzia luzeak bereziak dira: adiktiboak. Horri Pirinio edo Alpeen ederta-

suna gehituz gero, esperientziak puntu asko irabazten ditu. Popularron mailan, 12 ordutik goragoko probek abentura kutsua hartzen dute, eta hori da interesgarria. Finisher (amaitzen duena) izateko ekuazioan % 20 entrenamendua litzateke, % 20 nutrizioa eta % 60 burua, motibazioa, esperientzia eta arazoei aurre egiteko gaitasuna. Pasa den abuztuan, 227 km-ko *nonstop* proba batean, bigarren gauean, lo faltaren ondorioz aluzinazioak jasan nituen: jendea, sugeak, gazteluak... ikusten nituen, eta han ez zegoen ezer. Muga horien bila esperimintatzen jarraitu nahiko nuke goputzak lagunduz gero. Eskozian Cape Ultra, Spine Race, Tor des Geants, Artikoan Rovaniemin. Zerbait berezia eskaintzen duten lasterketak aukeraturiko ditut.

“Gure gazteek ingurueta mugitzen jarraitzen dute kirola egitera. Gabezia asko dago Deban”

Mendi-lasterketa eta igoera herrikoi ugaritan hartu izan duzu parte, bertako (Arnotrail, Apuko ultratril, Mendaroko mendi-lasterketa, Zegama-Aizkorri, Hiru handiak...) zein kanpo-koetan (Course de la Rhune, Ultratril du Montblanc...); bereziena zuzetza?

Gogortasunari dagokionez Canfranc-Canfranc (100 km); jendetza, giroa eta kirol maila kontuan hartzen baditugu, aldiz, Zegama-Aizkorri; antolakuntza aldetik, Beasaingo Ehunmilak aipatuko nituzke; eta bihotzean dudana, berriz, Zestoako Akuako bira, 10 txapel ditut bertan eta oroitzen gogoangarri asko!

Badira urteroko dituzun lasterketak; Kilimon Trail edo Zegama-Aizkorri, adibidez, 10 aldiz hartu duzu parte. Aurten ere izena eman al duzu?

Kilimon Trail-eko lan taldea oso jatorra da, urtero egoten naiz joateko gogoz. Zegaman zaila da hamar urtez lehen 10 korrikalarien artean sartzea, eta horrek hurrengo ediziorako dortsala ematen dizu. Orain arte lortu dut behintzat, eta aurten ere badirudi festa itzela izango dela!

Baduzu entrenatzeko mendi-bide, txoko kuttunik? Nola entrenatzen zara?

Deba inguruak paraje zoragarriak ditu oinez ibiltzeko edo lasterka egiteko. Andutz, Arbil, Mendata, Lastur eta hainbat eta hainbat bidezidor. Ezin kexatu.

Entrenamendu aldetik errepidea eta mendia uztartzen ditut, % 80 korrika eta % 20 bizikleta.

Hainbeste ordu saltaka, asko gauez... Alderdi psikologikoak ere izan-gu du bere pisua.

Egungo egoera nahasi honek, eguneroko estresak, arazoek... ez dute laguntzen. Motibazio positiboa mantenduz eta lan eginez proiektuak aurrera ateratzen dira. Bi egun biziko bagara ere egin ditzagun behintzat interesgarri. Kirola egiteak, beste askori gertatzen zaion bezala, ondo sentiarazten nau. Berdin zait zein ordu-tan, euritan, elurretan, edo gauez egin.

Hiru seme-alabaren aita zaitugu, horrez gain lan ere egiten duzu... Nondik ateratzen duzu hainbeste denbora?

Emaztea ere korrikalaria da eta nahiko ongi moldatzen gara. Txandaka kirola eginez eta lanak eta umeen zaintza partekatuz. Normalean goiz jaikita luzatzen ditut saioak asteburuetan. Makina bat egunsenti dastatu izan ditut mendian!

Herrian kirolak bizi duen egoera nola ikusten duzu?

Nik 15 urterekin inguruko herrietara joan behar izan nuen bezala, orain ere gure gazteek inguruetara mugitzen jarraitzen dute. Gabezia asko dago Deban. Denontzat mesedegarri izango litzatekeen igerilekuak egin gabe jarraitzen du. Arraun, piragua eta kayak-zaleek, hainbeste urteren ondoren, azpiegitura duinik gabe jarraitzen dute, gurea kostako herria izanda; penagarria da, benetan. Ez legoke batere gaizki Debabarrenean erreferente izan litezkeen skate roller (gurpildun patin) instalazioak egitea, herriko lurzorua hobetzea, zumardiko eremu zabalari etekin handiagoa ateratzea, Deba-Lastur-Itziar-Elorriagako eremuan Trail eta BTT ibilbideen estazioa sortzea, beste kirolak ere bultzatzea, eta gazteei doako aukerak ematea, besteak beste. Badago zer egin.

“Lasterketak amaitzeko ekuazioan % 60 da burua, motibazioa, esperientzia eta arazoei aurre egiteko gaitasuna”

Mendi-lasterketetan hasiberri diren gazte eta helduei zer esango zenieke?

Dudarik gabe aurrera egitera animatzeko, norberaren gaitasuna ibilbideari egokituz: gora oinez edo makilak erabiliz,

behera trotean edo korrika, pixkanaka sasoa hobetuz eta gero eta gehiago gozatu! Ez dakit egingo den, baina abuztuan Itziar Trail egiten bada badaukazue helburu berri bat!

Laguntzarik, babes ekonomikorik bal dago trail edo mendi-lasterketetan?

Laguntzak izan ditut, bai, material arloan, baina gabiltzanon artean % 5ek izango du bidaiatzeko eta gastuei aurre egiteko adinako diru-laguntza. Asko hazi da trail mundu/merkatu/korrikalari poltsa, baina baita prezioak ere. Hona lasterketen kostuen adibide batzuk: Zegama/Gorbea Suzien (70 euro), UTMB Montblanc (300 euro), Swisspeaks (850 euro), Spine Race (1500 euro), eta Marathon des Sables (3170 euro).

Epe motzera eta luzera zer asmo dituzu?

Apirilean Kilimon Trail; maiatzean, berriz, Azpeitian jokatu den Euskal Herriko Ultra Txapelketa (Domusa Teknik) eta Zegama-Aizkorri; eta uztaillean Ehunmilak Ultra Trail Beasainen Suitzarako prestatze bidean.

Pandemiak azalarazi digu naturaren besarkada behar dugula, airea arnastu, itsasoa sentitu, mendia inguratu, gorpuzta eta zentzuak bizirik mantendu. Merezi du eta eutsi horri, osasun fisiko eta mentalaren peskizan, norberak dauka-eta bere eguneroko jarrera aukeratzeko giltza.



BADATOR 22. KORRIKA!

Martxoaren 31n Amurriotik abiatuko da Korrikaren 22. edizioa *Hitzekin* lemapean eta hamaika egunez Euskal Herri osoa igaro ostean, Donostian amaituko da euskararen aldeko ekimen herrikoia, apirilaren 10ean. Debako eragileek apirilaren 7an 23:54ean hartuko dute lekukoa Errota Zar futbol zelaietan; Korrikak Debako kaleak zeharkatuko ditu (00:01ean) eta Itziarrerako bidea hartuko du gero (00:40), handik Zestoarantz abiatzeko. Bestalde, egun horretara begira giroa berotzen hasteko, datozen egunotarako egitarau oparoa prestatu dute elkarlanean Korrika Batzordeak eta herriko kultur eragileek.

Korrika kulturalako egitaraua **martxoaren 24an** abiatuko da, Zuhatza Euskara Elkarteak antolatutako Errigorako produktuen dastaketarekin, eta **martxoaren 25ean** KulturEkin egitasmoaren baitan antolatutako Esti eta Mikel Markezen kontzertuarekin emango zaio jarraipena programazioari.

Martxoaren 26an (larunbata), 12:00etatik 14:30era bitartean Korrikako materiala saltzeko postua jarriko da Plaza Zaharrean. Bertan, petoak erosteko eta egitarauaren inguruko informazioa jasotzeko aukera ere egongo da.

Egun berean, 16:30ean, Errota Zarren *Erronka: Euskararen aldeko gola* egingo da, eta gauean Aitor Sarriegi eta Iñaki Apalategiren bertsoez gozatzeko aukera izango da Arrano Elkarteak antolatutako bertso-afarian. Afarirako sarrerak salgai daude Arkatzan eta Zalburdin (lekua baldin badago azken orduan ere eman ahal izango da izena, 688 840 308 telefonoan).

Igande goizean, **hilaren 27an**, pala txapelketa mistoa antolatu dute Iruleek, Aldats pilotalekuan. Ondoren, 13:30ean, Aitzuri Abesbatzaren kalejira izango da.

Martxoaren 31n Zuhatza Euskara



Korrikaren azken edizioan Deban ateratako argazki herrikoia.

Elkarteak antolatutako *Berriketan.eus* webgune berriaren aurkezpenarekin egingo du aurrera Korrika kulturalak. Ostiral iluntzean, **apirilaren 1ean**, Boga eta Saltus garagardo-ekoizleek Korrikarako sortutako Hitz eta Ekin garagardo artisauen aurkezpena eta dastaketa gidatua antolatu dute Kultur Elkartearen, 19:00etan.

Apirilaren 2ko (larunbata) eguerdiko

hitzordua hondartzan izango da, Zurrumbilo ur kirol elkarteak *Busti zaitez Korrikaren alde* lemapean antolatutako bainu eta argazki herrikoiarekin. Ondoren, 13:00etan, Debako Musika Bandak kalejira egingo du herrian.

Biharamunean, **apirilaren 3ko** goizean, umeentzako ipuin-kontaktetaren saio berezia egingo dute Debako Kontalariak,

ASKETA, S.L.
 ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net
ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
 KALITATEA
 Empresa Registrada Nº 2/05/049
 NIVEL 2

Maitena Arrizabalaga Deba
 Odontologoa
 Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena
 HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24
 Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

AUKERA
 INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
 Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

urlo
 SERVICIOS INMOBILIARIOS
 HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
 Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak
 Aholkularitza
 Higiezin Agentzia
 Komunitateen administrazioa
 Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
 20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
 Tel./Fax: 943 192 303
 urlo@urlosi.net

22. ^{æk} korrika

HITZELAN HITZEGIN

Amurriotik Donostiara

martxoaren 31tik
apirilaren 10era

Deba-Itziar
Apirilak 7tik 8rako gauerdian

12:00etan, Kultur Elkarteko liburutegian.

Azken txanpan sartuta, **apirilaren 5ean** (asteartea), Luca Ricci italiar-euskaldunaren bizipenak ezagutzeko eta lunch eder batez gozatzeko aukera ere izango da, 18:00etan Kultur Elkarteko liburutegian, Zuhatzak antolatutako solasaldian.

Txikienak lehenik, guztiok ondoren

Korrika guretik igaroko den egunean, **apirilaren 7an** (osteguna), gaztetxoek Korrika Txikia egingo dute Deban eta Itziarren. Debako lasterketa Luzaro ikastetxetik abiatuko da eta herrigunea zeharkatu ostean Foruen Plazan amaituko da, ikastetxeak eta Zubi Guraso Elkarteak antolatutako txokoladarekin. Ondoren, umeentzako euskaraokea antolatu du Kolore Anitzek udaletxeko arkupeetan.

Itziariko Korrika Txikia ere arratsalde-

an egingo da, Lizarbe Guraso Elkartearen ekimenez.

Iluntzean, giroa alaitze aldera, adin guztietako herritarrentzako ekimenak izango dira aukeran. Itziartarrek kalejira antolatu dute trikitilariekin, eta ondoren Ostalean afari girotua egingo dute.

Deban, bestalde, Gure Kai, Kulunka, Kanean Kantuz eta beste kultur eragile batzuen artean antolatutako Plazajira izango da. Ekimena 19:30ean hasiko da Agirre jauregian, eta herriko kaleak zeharkatu ostean herriko plazetan iraupen laburreko ikuskizunak egingo dira. Plazajira argazki herrikoiarekin amaituko da, Foruen plazan, 21:00etan. Ondoren, Korrika iritsi bitartean, afaltzeko eta festa giroaz gozatzeko aukera ere egongo da, Aldats pilotalekuan (jatekoa eta edaria norberak eraman beharko ditu).

Azken kilometroak salgai

Oraindik ere salgai daude ibilbidean zehar lekukoa eramateko azken kilometroak. Kilometroa 450 euroan lor daiteke, baina zatika erosteko aukera ere egongo da.

Bestalde, aurreko edizioetan bezalaxe, kilometroa erosi ordez bestelako laguntza emateko prest dauden talde, norbanako edo enpresek Korrikari eta AEK-ri ekarpenak egiteko aukera izango dute oraingoan ere. Datozen egunetan, honen guztiaren inguruko informazioa azaltzen duten gutunak banatuko dira herriko saltoki eta tabernetan.

Lekukoa hartu edo ekarpen ekonomikoa egin nahi duten erakunde, elkarte, enpresa edo herritarrak Debako Korrika Batzordearekin jarri beharko dira zuzenean harremanetan, horretarako deba@korrika.eus helbidera idatzita edo 688 840 308 telefonora deituta (martxoaren 29a baino lehen).

Lekukoarekin korrika egiteko norberari dagokion tartea zein izango den jakiteko, zozketa egingo da martxoaren 30ean (asteazkena), 18:00etan, Korrika Batzordeak Kultur Elkartean egingo duen bileran bertan.

ITURLAN, S.L.
Iturgintza-Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com

Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

sasoiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiko@hotmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Gu saretzen ez bagara ez da ezer aldatuko

Bildu da jada Sare Feminista herriarentzat Eraso Matxisten Aurkako Protokoloa eraikitzen hasteko. Martxoaren 5ean izan genuen lehenengo asanblada irekia eta argi gelditu zen gure herriak ezinbestean behar duela eraso matxista jasan duena babesteko duen eta erasoak salatuko dituen protokolo bat.

Talde ederra bildu ginen lehen larunbat hartan Kultur Elkarterko liburutegian. DIT feministak egindako deialdiak erantzun bikaina izan zuen eta, hortaz, norberaren beharrak plazaratzeko eta iritziak elkarbanatzeko aukera izan genuen. Argi geratu zen, bestalde, eraso matxisten aurka egitea ez dela soilik talde feministaren egitekoa, herritar eta herriko eragile guztiona baizik eta, alde horretatik, ezinbestekoa izango dela denon inplikazioa.

Martxan da, beraz, Eraso Matxisten Aurkako Protokoloa. Oraindik badugu zer landua eta, horregatik, asanblada ireki gehiago egingo ditugu datozen hilabeteetan. Herriko feminista guztiei hurrengo asanbladetara gerturatzeko gonbidapena luzatzen diegu, gu saretzen ez bagara ez baita ezer aldatuko.

Sare feminista

Ikuskizunak, formakuntza, aldarrikapena... M8aren harira



M8aren inguruko egitarauak aurrera darrai. Emakumeen zikloaren inguruko saioak (tailerrak, kafe-tertuliak) egin dira jada; *Bete ingoiau* antzezlanak ikustera 50 lagun gerturatu ziren, eta ohiko manifestaldian ehunka lagunek hartu zuten parte. Horiez gain, Gaztelekuak hilekoari buruzko formakuntza ari da ematen DBHn eta, apirilaren 1ean eta 2an, hileko-kopak eta konpresa berrerabilgarriak banatu eta azalpenak emango dituzte.

Martxoaren 6an, Donostian egindako Lilaton emakumezkoentzako herri-lasterketara (32. edizioa) ere inguratu ziren herritar batzuk. Bakarrik egin zuten saltaka zenbaitek, eta beste batzuek, aldiz, talderen baten babesean. 5.000 korrikalarik hartu zuten parte lasterketan.



Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

LK Home

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com

SGO

SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ
Abokatu eta ekonomialari elkartuak
Zerbitzu juridikoak
670 411 444
centrolegal@sgoabogados.eus

Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartzakalea, 3-4 beheak - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Amaiak Batek lehen emakume taldea omendu du bere 75. urteurrenean



Arg.: Ander Salegi

Amaiak Batek bere 75. urtemuga ospatzeko antolatutako ekimenekin jarraitzen du. Iazko irailetik, hilabetez hilabete, gai bat hartu du klubak ardatz eta nolabait aitorpena ere egin nahi izan dio gai horren bueltan aritzen den jendeari; hitzaldi, ikastaro, partida eta abarrak antolatuz.

Emakumezkoen Nazioarteko Eguna martxoan ospatzen denez, Amaiak Bateko emakume taldeari merezitako omenaldia egiteko baliaitu nahi izan dute hilabetea. Martxoaren 12a haiei eskainitako eguna izan zen, eta Deban emakumezkoen futboleko lehen hazia jarri zutenei omenaldia egin zitzaion, haiek eta ondorengo guztiak gogoratu nahian. Neska taldeen koordinatzaile Angel Mari Galin-

dezen esanetan, "eurei esker gaude gauden tokian eta, aurrerantzean ere, lanean jarraituko dugu Amaiak Baten emakumeen presentzia handitzeko".

Bi partida jokatu ziren hilaren 12an Errota Zarren: mutil nagusien taldeak Ordiziaren aurka jokatu zuen, eta neska nagusien taldeak Arizmendiren aurka. Bi partiden artean egin zitzaion omenaldia Amaiak Bateko lehen neska taldeari (pintxo potea ere egin zuten gero).

Taldearen sorrera eta ibilbidea

1998an, Amaiak Batek bere lehen emakume taldea atera zuen, Julian Ruizek eta Jose Ignacio Antolinek entrenatuta; 23 neska ziren taldean. Talde honek

Gipuzkoako beste 14 klubekin batera Gipuzkoako Futbol Federazioko txapelketan hartu zuen parte. Nolanahi ere, klubeko kideek aitortzen dute hasieratik zailtasunak izan dituztela emakumeen taldea mantentzeko. Herri txikia izanik, hain zuzen, taldea osatzeko gutxieneko neska kopurura heltzeko hainbat buruhauste izan ditu zuzendaritzak.

Gaur egun, Debako futboleko, eta, zehazkiago, Amaiak Baten, emakumearen paperak presentzia nabarmena du: benjamin talde bat eta bi alebin talde daude futbol eskolan; eta infantil, kadete eta senior talde bana federatuen artean. Emakumeen presentzia indartzen ari da taldearen barne-egituretan ere, entrena-tzaileen artean eta zuzendaritzan, kasu.

Lorpen aldetik, lehen kadete mailan txapeladunen finalera hiru aldiz heldu da taldea, eta bitan izan da txapeladun (iaz azkeneko aldiz) eta ohorezko kadete mailan ere egon izan da urte batzuetan. Lehen taldea, berriz, ohorezko mailara igo zen (Gipuzkoako kategoria gorena) duela bi denboraldi, eta bertan jarraitzen du.

Galindezen hitzetan, "urtero kostatzen da taldeak ateratzea. Emakumezkoen futbola asko igo da, baina oraindik ez da nahikoa, Debako biztanle kopuruarekin, egitura egonkorra izateko". Hori hala, Amaiak Batek lanean eta "apustu sendoa" egiten jarraituko du emakumezkoen futbola bultzatzeko. Bide batez, klubeko zuzendaritzak neskek futbolera gertura daitezen animatu nahi ditu.

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

A D

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Beheko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

f www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak

Martxoaren 25ean zabalduko da Artzabalgo hilerria



Artzabalgo hilerria martxoaren 25ean irekiko da, baina lehen zabalduko zutela iragarri zuen Udalak otsailean, eta martxoaren hasieran jakinarazi zuen, herritarrek beren etxeetan jasotako hilerriari buruzko informazioa biltzen duen argitalpenean, hilerri berria martxoaren 25ean irekiko dutela ofizialki, 12:00etan. Aurrez, hilaren 17, 18 eta 19an hilerria ezagutzeko aukera izan dute herritarrek, horretarako propio antolatutako bisita-gidatuetan.

Eñaut Arakistain eta Ibai Idiakez nagusi mus-txapelketako kanporaketan

Martxoaren 11n jokatu zen Arrano Elkartearen Euskal Herriko XIII. Mus Txapelketako Debako kanporaketa eta partidetan Eñaut Arakistain eta Ibai Idiakez nagusitu dira herriko txapelketan parte hartu duten sei bikoteen artean. Bigarren sailkatu direnak, berriz, Itziar Bergara eta Iñaki Astigarraga izan dira. Hilaren 26an Seguran jokatu den Gipuzkoako finalean parte hartzeko aukera izango dute orain bi bikoteek. Horren ondoren, Euskal Herriko finale-



an, apirilaren 9an, Baigorriaren erabakiko da Euskal Herriko bikote txapelketaren zain dena.

Amagoia Arrieta bocciako Madrilgo topaketan

Amagoia Arrieta kirolariak (Dordoka Taldea) eta Javi Camacho teknikariak (Ostadar) emakumeei zuzendutako bocciako kontzentrazioan hartu dute parte martxoaren 11tik 13rako asteburuan

Madrilen. Garun Paralisia duten Kirolarien Federazioak antolatuta, Estatu osoko bederatzi emakumek hartu dute parte bertan, eta horietako bat izan da Arrieta.



GAURSA

📍 Otaola Hiribidea, 22 - Eibar

Kontzesionario eta zerbitzu ofizialak

Ibilgailu berriak
Bigarren eskuko ibilgailuak
Mantentze-zerbitzu azkarra
Mekanika
Karrozeria
Ibilgailuen alokairua




DACIA



Ekinean Debabarrean

dkt
Debabarreko
Komunikazio
Taldea

Jende askok izan du noizbait ekiteko ideiarekin bat edo beste, baina gutxitan eramaten dira aurrera ideia horiek, ekiteko ideia bat baino gehiago behar delako. Ekiteko ausardia behar da, ilusioa, baikortasuna, baina ahaztu gabe ekintzaile izateak arriskuak ere badituela. Ekiten hasi nahi duenak intereseko informazioa topatuko du orriotan.



Ekintzailetzaren abentura



JUAN ÁNGEL BALBÁS DEBEGESAKO
ZUZENDARI NAGUSIA

Schumpeter-en azalpenetara iritsi gabe (suntsipen sortzailea), ekitea ekintza bat garatzea da, izaera ekonomiko edo sozialeko jarduera bat garatzea. Baina, zerk bultzatuta ekiten dugu? Motibazioak askotarikoak izan daitezke, eta, seguru asko, pertsona bakoitzak arrazoi ezberdinak bultzatuta egingo du edo egin izan du. Azken batean, ekiteko ekintzak oinarri psikologikoak, soziologikoak, ekonomikoak, esperientziazkoak, ezagutza handikoak... izan ditzake. Esan daiteke, hala ere, kasu gehienetan asmo edo ideia bat betetzeko helburuarekin hasten dela, edo aipatutako oinarrietako batetik eratorritako behar bat betetzeko egiten dela.

Bizi garen testuinguruan, duela hogeit urtetik hona, "beste batzuek ekin diezaizoten" dioen aforismoa praktikan jarri dugu Europa mailan, eta hortaz, ekintzailetza ordu txikietan dago. Izan ere, Europako herritarrok ulertu dugu munduko fabrikek Asian egon behar dutela eta gure bizimoduak bestelakoa izan behar duela. Baina, pandemia batek eta gerra batek agerian utzi du digu ez dugula aurrez definitutako autosufizientzia-eredu energetikorik, edo gure herrialdean ez edukitzeak garestitu

egiten dituela aluminioa, olio edo garria. Hori guztia gertatzen da ekonomia-aren sektore guztietan ekiteko nahia galduz joan delako; bizitza hobea, erosoagoa (itxuraz) lehenetsi dugu baina ondorioz, gero eta mendekotasun handiagoa eragin digu.

Debabarreneko egoera oso bestelakoa izan da orain arte, izan ere, sen ekintzailea izan dugu eskualdean betidanik. 1923an, eskualde honetan zegoen espiritu ekintzailea benetan garrantzitsua izan zen eta hala erakusten du Ignacio Anitua enpresaburuak Villalavellari bidalitako gutunean nola azaltzen dion "...3 gurpileko motorrak, ibilgailuak, bizikletak..." egiteko gaitasuna. Borondate ekintzaile haren ondorioz, Debabarrenak oparotasun ekonomiko eta sozial nabarmena izan zuen, joan den mendearen amaiera arte iraun zuena. Gaur egun, oraindik gure inguruko beste edozein herrialderen bizi-maila homologa-

"Debegesan gure lana da ekintzailetzari buruz hausnartzea, eskualdeko espiritu ekintzailea bizirik mantentzeko"

garria duen eskualde industrial izatea ahalbidetzen digu.

Horregatik, Debegesan gure lana da ekintzailetzari buruz hausnartzea, eskualdean hainbeste identifikatzen gaituen izpiritu ekintzaile hori bizirik mantentzeko. Gure gizartearen eta gure gazteriaren kontzientziak mobilizatzeko unea da, inoiz baino ezagutza handiagoa duen gizarte, ekintzaile izatera animatzeko. Ekintzailetza-jarduerak, gaur egungo merkatu-aukerak, gutxi edo batere ez dute zerikusirik izango aurreko mendearen hasierako jarduerekin, baina aukerak dira baita ere eta hor daude: energia berriztagarriak, datuen analisia, hirugarren adinekoen beharrak, ekonomia zirkularra, meta bertsoa, mugikortasun elektrikoa, elikadura.

Aukera horretaz jabetuta, erakundeek eta enpresek benetako ekintzailetza-ekosistema jartzen dute pertsona ekintzaileen eskura (inkubagailuak, laguntzak, aholkularitza, industria-eragileen lankidetzak, BPTD Enpresa Elkarrearen enpresa-harremanak, etab.).

Hausnarketa honen amaiera gisa, bitzan abentura batean murgildu nahi duten pertsona guztiak animatzen ditugu, Debegesa eta Debabarreneko gainerako eragileekin elkarlanean, ideia hori martxan jartzeko.

Argitaratzailea: Debabarreneko Komunikazio Taldea

Erredakzioa: Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

Publizitatea: Leire Rubio, Belen Ulazia, Dorleta Vidal, Oier Larreategi, Alex Turrillas

Diseinua eta maketazioa: Oier Larreategi

Tirada: 18710 ale

dkt
Debabarreneko
Komunikazio
Taldea

Eskualdeko ekintzaileen laguntzaile

DEBEGESA

Debegesa Garapen Ekonomikorako Elkartek garrantzi berezia ematen dio ekintzailetzari. Horren adibide dira handik irten diren ekimen eta programa guztiak, eta han aurkitu ditzakegun azpiegiturak.

Ane Iturzaeta da Debegesako ekintzailetza teknikaria eta, esan digunaren arabera, mota guztietako proiektuak artatzen dituzte. “Bakoitza fase ezberdinetan etortzen da, baina fase guztietan laguntzeko prest gaude”, diosku.

Proiektu bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina jarraitu beharreko pausoak antzekoak dira guztietan. “Hasteko, ideia lantzen dugu erreminta ezberdinak erabiliz. Gero, merkatu kontrastea egitea gomendatzen dugu, ideia merkatuan txertatu daitekeen ikusteko, eta ondoren, bideragarritasun-plana egiten dugu. Proiektua bideragarria bada, hura martxan jartzeko pausoen inguruko informazioa errazten dugu: forma juridikoa erabaki, lizentzien izapideak zeintzuk diren azaldu, baimenak non eskatu...”, argitu digu Iturzaetak.

Aipatutako pausoetan bidelagun izateaz gain, proiektuei balio erantsia ematen saiatzen dira Debegesan, batez ere digitalizazioaren eta berrikuntzaren arloetan.

Bidea osatzeko, azkenik, dirulaguntzen inguruko informazioa eskaintzen dute. Debegesak eskualdeko udalek eta bestelako erakundeek ematen dituzten laguntzen berri ematen du, eskaeraren lehenengo pausoak egiteko jarraituko beharreko epe eta pausoz gain.

Make in!

Iturzaetak esan bezala, mota ezberdinetako proiektuak garatzen dira Debabarrenean. Baina, industria da eskualdeko indarguneetako bat, eta, hori bultzatzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko asmoz, BPTD Elkartearekin batera ‘Make in!’ industria-ekintzailetza programa jarri dute martxan.

Lehenengo edizio honetan hiru enpresak hartuko dute parte apirilean hasiko den prozesuan eta sei hilabetetan zehar parte-hartzaileek formakuntza-saioak eta aholkularitza jasoko dute, hainbat baliabide eskura edukitzeaz gain (lan-espazioak, finantziario aukerak...).



Eibarko Azitaingo poligonoan dago Debegesa.

Debabarreko ekosistema eta azpiegiturak

‘Make in!’ programan gertatzen den bezala, Debabarreneko ekosistemak berebiziko garrantzia du ekiteko orduan. “Enpresak, formakuntza-zentroak, teknologia-zentroak, inkubategiak, azpiegiturak... ditugu eskualdean”, diosku Iturzaetak.

Debabarrean lau azpiegitura berezi daude ekintzaileentzat: Izarra Centre Ermuan, Eibargunea enpresa-inkubagailua, Debegesaren eraikinean zabaldu berri duten ekintzaileentzako gunerria eta Teknikerreko inkubategia. Azken hori Teknikerren egoitzan dago eta BIC Gipuzkoa enpresa-zentro berritzaileak kudeatzen du.

Eibargunean 15 metro karratuko zazpi modulu, bi bilera-gela eta office bat aurkitu ditzakegu. Azitain industrialdean dago eta, lanerako espazioa emateaz gain, Debegesak zenbait zerbitzu eskaintzen die bertan dauden enpresei.

Informazio gehiago 943 82 01 10 telefonoan edo ekintzaile@debegesa.eus helbidean

Debegesa ondoko ekintzaileentzako gunerria, ostera, bost bulego, bilera-gela bat, office bat eta gunerria irekia daude. “Berrikuntza eta teknologia arloak lantzen dituzten proiektuak erakarri nahi ditugu”, esan digu Iturzaetak. Gainera, gunerria irekia eta bilera gela erabilgarri daude eskualdeko enpresa eta eragileentzat. Teknikerren, ostera, 35 metro karratuko sei gunerria daude ekintzaileen eskura.



Debegesako Ane Iturzaeta.

10 urte ekintzaileak bultzatzen

IZARRA CENTRE

Izarra Centre ekimena 2012an abiatu zen, Ermuko Udalak sustatuta. Bere helburuen artean daude EAEko industria indartzen laguntzea, berrikuntza bultzatzea, espiritu ekintzailea sustatzea eta lurraldeko talentua lurraldean mantentzea. Beti ere, hazkunde iraunkorraren bermatzaile gisa, bai ingurumenaren zein gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik.

Ekintzaitza-garairako espazioak eta coworking aretoak ditu, hala nola inkubazio, finkapen eta azeleraziorako guneak. Halaber, prozesu osoa bultzatzen laguntzeko mentoring programa espezializatua du martxan, eta lege eta lan arloetako aholkularitza zerbitzuak. Bestalde, partaidetza-maileguak eskaintzen ditu ekintzaitza-proiektuak finantzatzeko.

Berrogei enpresatik gora

Izarra Centre berrikuntza-ekosistema gisa eraten da, non enpresa finkatuek, pertsona ekintzaileek, unibertsitateek eta ezagutza-zentroek espazioa eta ikasketza partekatzen duten, garapen iraunkorraren erronka garrantzitsuei



Izarra Centre.

erantzungo dien eraldaketa sozial eta ekonomiko baterako balioa sortuz.

Gaur egun, berrogei enpresatik gora daude kokatuta espazio honetan. Beraien

eskura jarritako zerbitzu eskaintza zabalak, kalitatezko espazioak zein bultzatutako sare eta lankidetzak proiektuak erabakigarriak izan dira aukeraketa honetan.

Zer eskaintzen dizue Izarra Centre ekosistemak?



ELON

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

“Izarra Centre ekosistema funtsezkoa izan da ELONen biziraupenerako. Hasierakoak izan dira gure urterik ahulenak eta bertan izan dugu laguntza gehien. Izan ere, eskertzekoa da Ermuko Udalak emandako babesa. Azpimarratzekoak dira bertako instalazioak eta hauen kalitate maila. Gure kasuan kokapenak berak ere izan du zeresana aukeraketan: EAEko hiru hiriburuen erdian egoteak asko lagundu digu gure negozioa garatzeko orduan”.

Bai.k

BAI.K

TEKNOLOGIA


“Izarra Centre leku aproposa izan da Bai.k-ren garapenerako, ez bakarrik edozein enpresa-proiektutarako azpiegitura eta baliabide enpresarial eta ekonomiko apartak izateagatik, baita hornitzaileei dagokienez gune estrategiko batean egoteagatik ere. Gaitasun teknikoek dagokienez, toki oso egokia da. Bertako azpiegiturak, eskaintzen dituen zerbitzuak eta hango langileen laguntza funtsezkoak dira izaera teknologikoko edozein enpresa-proiektutarako”.

GAIA

CLUSTER ICTA

GAIA EUSKADIKO TEII INDUSTRIEN ELKARTEA

“Izarra Centre ideien eta negozioen garapenerako ekosistema aurreratua da. Ermuak duen estrategiak enpresen hazkunde, gazteen eta profesionalen garapena eta hiri erakargarri eta iraunkorrago bat ahalbidetzen du, eta esfortzu handia egiten ari da esparru horretan. Bertako enpresa sarearekin konpromiso handia erakusten du, baliabideak inbertitzen eta proiektu pilotuak bultzatzen. IoTBasque Izarra Lab living-lab horren adibide garbia da: gauzen Internet-aren alorrean garatutako laborategia, hain zuzen ere”.



IZARRA CENTRE

EKITEKO, HAZTEKO ETA LANKIDENTZAN ARITZEKO ESPAZIOAK

Zer eskaintzen dugu?

Zuretzako leku bat dugu, kokapen egoki batean, guztiaren erdian.

Gertu eta ondo komunikatuta EAEko hiru hiriburuekin.



01. Ekin

Kontaiezaguzu, zer behar duzu? Zure negozioa garatzen jarraitzeko leku pribatu bat? Hazteko espazio gehiago? Izarra Centre da zure lekua. Denetariko gune egokiak ditugu. Zuntz ultra-zabaleko konexioa duen azpiegitura modernoa eta mentoring zerbitzua kontrastatua (eskarmentuduna).



Prestakuntza

Martxan jarri ahal izateko, enpresa-kudeaketarako prestakuntza jasoko duzu.



Aholkularitza

Zure enpresa-proiektua diseinatzen eta abiarazten lagunduko dizugu.



Espazioak

Ekintzailtza-fase bakoitzerako espazioak: coworking-guneak eta bulego zabalak sendotzeko eta hazteko.



Mentoring

Programak espezialistarekin onenak ditu, bide osoa beraien gidaritzapean egiteko.



Networking

Enpresekin konektatzeko eta nazioarte mailan erreferentziako sareak sortzeko ekitaldiak.



02. Berritu

Berrikuntza beharrezkoa da merkatu lehiakorretan bizirauteko. Berritzeak hazten eta edozein egoerataraz egokitzen laguntzen du, arrakasta izateko bermearekin. Arlo horretan lan egiten duten erakundeekin elkarlanean ari gara, eta zu ere horren parte izatea nahi dugu. Dibertsifikazioa eta lehiakortasuna sustatu nahi ditugu, erakundeen arteko lankidetzak publikoak eta pribatuak garatu, I+G+b eremu publikoan zein pribatuan sustatu, eta prestakuntza eta ekintzailtza bultzatu.



IoT Basque Izarra Lab



Grabitatea



Zuntz konexioa



03. Hazi

Hazi gurekin. Zure hedapen-beharretara egokitzen diren espazio modularriak eta aldakorak. Bilerak eta prestakuntza egiteko gela komunak. Hazteko erabakian laguntzeko laguntzak eta dirulaguntzak.



04. Lankidetzak

Aukera berriak bilatzen ditugu enpresei hazten laguntzeko, eta, horretarako, hainbat eragilerek batera egiten dugu lan. Enpresak gure proiektuen partaide egiten ditugu, lankidetzak sareak aprobetxatuz hazteko aukerak edukitzeko.

ZER BEHAR DUZU? HITZ EGIN DEZAGUN - Kontakua: 943 17 91 50 / info@izarracentre.com

Ekintzaileen zerbitzura

DEBABARRENEKO IKASTETXE GEHIENETAN ABIAN DA URRATSBAT PROGRAMA

Hezkuntzaren esparruan, Debabarrenean bada ekintzailetza bultzatzeko, lantzeko eta ikasleei eta ikasle ohiei bide horretan laguntzeko programa nagusi bat, Lanbide Heziketa lantzen duten hezkuntza zentro gehienetan eskaintzen dena: Urratsbat.

Eskualdeko ikastetxeen artean, besteak beste, IES Uni Eibar-Ermuak, Elgoibarko Meka Lanbide Eskolak, Mutriku BHI Institutuak, Kardala LH II Akuakultura Eskolak eta Eibarko Armeria Eskolak txertatuta dute Urratsbat programa euren ikasketa-lerroetan.

Ikastetxeotan, azken 10-15 urteotan ari dira programa hori eskaintzen eta oro har, modu oso positiboan baloratzen dute, nahiz eta baduen zer hobetu ere, Eibarko Armeria eskolako Iñaki Etxeberria Urratsbateko arduradunak azpimarratu duen moduan.

"Nire ustez, erakunde gehiegi daude arlo berean sartuta, kasu honetan, ekintzailetzan: udalak, ikastetxeak, SPRI-BIC, Debegesa... Horrez aparte, finantzazio aldetik gabezia dagoela esango nuke; finantzazio hobea balu, Urratsbat programa asoz ere eraginkorragoa litzateke. Adibidez, zentzu horretan, Bizkaian Gipuzkoan baino baldintza hobek eskaintzen ditu diputazioak, dirulaguntza handiagoak eta gehiago daude".

Aholkularitza, baliabideak...

Kritikak kritika, Armeria eskolako irakasleak bai uste du Urratsbat baliagarria eta lagungarria dela enpresa bat sortu nahi dutenendako, haren bitartez, aholkularitza integrala zein gutxienerako baliabideak jartzen baitituzte negozio ideia bat dutenen eskura, bulegoak zein ikas-

tetzeko ekipamenduak erabiltzeko aukera barne.

Programaren baliagarritasunaren erakusle da azken hamar urte pasatxoan Debabarreneko ikastetxeetatik eratorrita, hainbat enpresa berri sortu direla Urratsbat programa baliatuta.

Enpresa berriak

Datu batzuk aipatze aldera, Armeria Eskolan, 22 enpresa sortu dira Urratsbati esker. "Gaur egun, 22 horietatik 15 bizirik daude eta 55 lagun daude haietan lanean", jakinarazi du Etxeberriak. Izen batzuk ere aipatu ditu: "Estrulaser Tubo (Legazpin), hiru bazkiderekin hasi eta orain 18 langile ditu; Durangaldeako Seobide marketin agentzia, 12 langile dituena edo Eibarko Infosec informatikako enpresa, lau langile dituena. Azken

aurrez aurreko
ATE IREKIAK
MARTXOAK 29

GOI MAILAKO ZIKLOAK 18:30
ERDI MAILAKO ZIKLOAK 17:30

*info gehiago gure
webgune eta sare
sozialetan*



943 20 32 44
eibar@armeriaeskola.eus
www.armeriaeskola.eus



"Etorkizun baten oraina"




ArmeriaEskola^x

hori izan zen Urratsbaten bitartez sortu zen lehena".

Eskualdeko bestelako ikastetxeetan ere eman ditu fruituak ekintzailtza programa horrek. Esaterako, azken hiru urteotan, Meka Lanbide Eskolan hamai-ka kontsulta izan dituzte eta horietatik hiru enpresa sortu dira. Uni Eibar-Ermuan, berriz, programa abian dutenetik, 17 enpresa sortu dira eta beste asko sortzeko aukerak aztertu dituzte eta Mutrikuko Institutuan autonomo modura sortu dituzte enpresa txikiak elektrizitate arloan.

Doako zerbitzua

Urratsbat programan parte hartzea doakoa da. Berau eskaintzen duten eskualdeko ikastetxeetako ikaslea edo ikasle ohia izatea da baldintza bakarra. "Adibidez, nahikoa da Armeria Eskolako ikastaro batean parte hartzea, hura bukatu ondoren edo bitartean, Urratsbat programa erabili ahal izateko", dio Etxeberriak.

Uni Eibar-Ermuako Urratsbateko arduradun Nekane Fernandez de Arroiabek ere hori berori azpimarratu du: "Urratsbateko aholkularitza integraleko zerbitzua eskaintzen dio pertsona ekintzaileari bere enpresa abian jartzeko prozesuan. Adina ez da kontutan hartzen dugun irizpidea, ikastetxeko ikasle edo ikasle ohi izatea baino. Gure lehen helburua ekintzailtza ezagutzera ematea da. Gure ikasleek merkatuan aurkitu ditzaketen aukera ezberdinak identifika ditzaten, besteen kontura lan egin edo beraien enpresa sortzea".

Akonpainamendua

Mutrikuko Institutuko Urratsbateko arduradun Joseba Solabarrietak, bestalde, programak duen bidelagun izaera azpimarratu du: "Laguntza guztiak eskaintzen zaizkie, negozioa sortzerako orduan eta baita sortu ondoren ere, haiekin kontaktuan segitzen baitugu. Gainera, norberaren premiaren arabera antolatzen da guztia". Solabarrietak gaineratu duenez, nekeza da gazteengan ekintzailtza kultura bultzatzea, "denek nahi baitute funtzionario edo futbolari izan. Baina garrantzitsua da programa ezagutaraztea, burutik ken dezaten lanerako aukera bakarra dutela, besteendako lan egitea. Espikatzen zaie norberaren kontura lan egiteko aukera ere badagoela".

Meka Lanbide Eskolako Urratsbat programako arduradun Saioa Alberdik, berriz, ezinbestekoa ikusten du ikastetxeetan zerbitzu hori izatea: "Ikastetxean lanbide bat ikasi eta gaitasun tekniko eta "soft skills" direlakoetan (zeharkako gaitasunak) trebatu den ikasle orok, buruan negozio ideia bat izanez gero,



Iñaki Etxeberria Armeria Eskolako UrratsBat programako arduraduna bulegoan.

berau ekonomikoki bideragarria den edo ez aztertzeak akonpainamendu zerbitzua eskaintzea ezinbestekoa ikusten dugu. Bailarako sare-enpresariala ereitea eta sustatzea da Meka Lanbide Eskolako apustu etako bat".

Jarrera ekintzailea

Dena den, Urratsbat ez dago bakarrik bideratuta enpresak sortzera. Programa horren arduradun eskualdeko irakasleek azpimarratu dute programak berak eskaintzen duen jakintzak ere baduela garrantzia.

Mekako Saioa Alberdik jarrera ekintzailea izatearen garrantzia azpimarratu du: "Ezinbestekoa iruditzen zaigu ikastetxetik pasatzen den ikasle orok dohai hori garatzea. Horretarako, ekintzailtza landu eta lan aukera gisa aurkezteaz gain, jarrera ekintzailean eta pentsamendu sortzailean sensibilizatzen dira ikasleak. Sensibilizazio hori lan arlorako ezinbestekoa ikusten dugun arren, bizitza pertsonalerako ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Meka Lanbide Eskolatik pasatzen diren ikasle orori Urratsbat Programa aurkeztu eta azaltzen zaio, eta, honez gain, ekintzaile ezberdinak ikastetxera gonbidatzen ditugu beraien ibilbidea gurekin partekatzera. Oso esperientzia erreal eta politak izaten ohi dira, non ikasleak ekintzailtza prozesu erreal batetako oinaze eta garaipenak zuzenean entzuteko eta bizitzeko aukera paregabea duelarik".

"Laguntza guztiak eskaintzen zaizkie, negozioa sortzerako orduan eta baita sortu ondoren ere"

tzailtza prozesu erreal batetako oinaze eta garaipenak zuzenean entzuteko eta bizitzeko aukera paregabea duelarik".

Ideia bera azpimarratu du Mutrikuko BHI Institutuko Solabarrietak: "Ekintzailtza lantzen dugu ez bakarrik enpresa sortzeko, baizik eta eguneroko bizitzan norberak izateko inizatiba eta bultzada, enpresa izaten bukatzen ez bada ere. Ikasketa prozesu bat delako. Eta ikasten dute prozedimendu eta kultura enpresariala eta ekintzailtza kultura. Hori interesgarria da euren bizitzarako".

Gutxieneko jakintza

Hori bai, gomendio modura, Armeria Eskolako Iñaki Etxeberriak azpimarratu du enpresa bat sortu aurretik beharrezkoa dela gutxieneko esperientzia izatea garatu nahi den alor horretan: "Lehenengo ikasi egin behar da, gero lanera irten, zer dagoen ikusi eta ikasi eta ondoren etorri. Enpresa bat muntatzeko behar da jakin alor horretan zeintzuk diren bezeroak, beharrak eta abar. Irauten duten ekintzaileen ezaugarri bat da ez direla zerotik hasi eta teknikoki bazutela gutxieneko jakintza. Diru poltsa txo bat ere beharrezkoa da, inbertsioa egin behar izaten delako eta beste ezaugarri bat da gustuko zerbaite egitea, horrek balio erantsia dauka".

Bat egiten du ideia horrekin Mekako ordezkariak ere. "Ekintzaile on batek, batez ere, ezaugarri eta baldintza zehatz batzuk izatea eskatzen ditu (arriskuak bereganatzeko ausardia, arazoaren ebazpenareko trebezia, komunikatzeko erraztasuna, ...), ez adin zehatz bat. Hala ere, ez da ohikoena 18 urtetik beherakoa den ikasle bat ekintzailtza ideia batekin bertaraztea".

Enpresa bat sortzeko bidelagun

URRATSBAT PROGRAMA

UNI Eibar-Ermua zentroan Lanbide Heziketako hainbat ziklo eskaintzen dituzte. Informatikarekin, merkataritzarekin, administrazioarekin eta gorputz eta kirol jarduerekin zerikusia duten zikloak dira eta ikasleak lanerako prestatzen laguntzen dituzte. Lan mundura eman beharreko jauzia, ostera, ez da beti erraza izaten eta, aukera faltan, ikasle batzuek euren kabuz ekitea erabakitzen dute.

Ekintzaileek euren asmoak errealitate bihurtu ahal izateko jarraitu behar duten bidea bihurgunez josita dago. Aurrean jartzen zaizkien oztopoak gainditu ahal izateko, Urratsbat programa UNI Eibar-Ermua ikastetxean ikasten diharduten edo ikasi dutenen bidelaguna da. Proiektua 2006/2007 ikasturtean jarri zuten martxan UNI Eibar-Ermuan

Carmelo Oyarzabalen ekimenez eta harrezkero ekintzaileek 17 enpresa sortu dituzte.

Baliabideak eta sarea

Idea on bat edukitzeaz gain, ekintzaileek zenbait baliabide behar dituzte euren proiektuak garatu ahal izateko. Normala denez, gehienek zerotik ekiten dute, eta, beharrak asetu ahal izateko, Urratsbat programan sartzen direnek UNI Eibar-Ermuako instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko aukera izaten dute.

Ekintzaileek, gainera, une bakoitzean behar duten aholkularitza jasotzen dute bere ibilbidearen lehen urtean. "Horrela, lan-munduan sartzera animatzen dira, beren negozio-unitatea sortuz", diote UNI Eibar-Ermuakoe.

Urratsbat programa Hego Euskal Herriko hainbat zentrotan eskaintzen dute eta EAEn 321 enpresa sortu dira orain arte. Horrela, bertan parte hartzen duten Lanbide Heziketako zentroek eta sortutako enpresek Urratsbat sarea osatzen dute, urratsbatsarea.eus webgunean ikusi daitekeen bezala. Euskadiko ekintzaileentzako erreferentzia bihurtzea da sarearen erronka. Horretarako, bi helburu nagusi ditu: enpresen emaitzen kontua hobetzea eta Urratsbat programaren espirituari eustea.

Programaren inguruan informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, info@urratsbatsarea.eus helbidera idatzi daiteke edo, bestela, UNI Eibar-Ermuan programaren arduraduna den Nekane Arroiaberekin harremanetan jarri (943 899 211 - urratsbat@uni.eus).

IZAN EKINTZAILE!!

**UNI
EIBAR
ERMUA**

Otaola Hiribidea, 29,
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11
idazkaritza@uni.eus
www.uni.eus | @uni.eus

ELKARREKIBETASUNA
GIZARTETASUNA
GIZAKIEN BIZIAREN
KALITASUNA

- MERKATARITZA JARDUERAK**
- NAZIOARTEKO MERKATARITZA**
- GARRAIO ETA LOGISTIKA** *SEGURUA
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA**
- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK**
- + ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ESKAINTZA PARTZIALA ARRATSALDEZ
- EGOKITZAPEN FISIKOA**
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA**
- MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK**
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA**
- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA**
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA**
- ZIBERSEGURTASUNA INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN INGURUNEETAN**

ERDI MAILAKO TEKNIKARIA

GOI MAILAKO TEKNIKARIA

ESPEZIALIZAZIOA

"Urratsbaten papera berebizikoa izan da ekiteko orduan"

OIHANE GARITAGOITIA ETA SONIA AMIAMA SUSTRAI

Eibarren dagoen Sustrai ongizate zentroak Urratsbat programaren laguntza jaso zuen proiektua aurrera ateratzeko. "Oso-tasunean pertsona bat lantzeko lekua da Sustrai", Oihane eta Soniak esan digutenaren arabera. Hau da, gorputza barrutik eta kanpotik zaintzeko aukera ematen dute. Horrela, nutrizio-hezkuntza, kobido masajea eta psikoterapia zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Gorputza barrutik eta kanpotik zaintzeko zerbitzuak eskaintzen dituzue. Adin guztietako pertsoneri zuzenduta daude?

SONIA: Bai eta horrez gain, psikologia arloan gero eta eskaera gehiago ari gara ikusten, batez ere soziohezkuntzaren arloan, eta zerbitzu hau ematen hasiko gara seguruenik.

OIHANE: Familiekin interbentzioak egiten hasi gara. Psikologiako kasu asko ditugu: umeak, familiak, nerabeak, banaketa-prozesuak...

SONIA: Bestetik, hemen erabiltzen ditugun produktuak saldu ere egiten ditugu. Osasuna zaintzeko produktuak dira, toxikorik gabekoak eta biodegradagarriak. Zuk erabiltzen duzuna ona bada, naturarentzat ona da, eta alde-rantziz.

Nola sortu zen Sustrai martxan jartzeko ideia?

SONIA: Oihane ezagutu baino lehen, buruan bueltaka nuen horrelako proiektu bat sortzeko ideia eta, justu, Oihane agertu zen. Bera psikologoa da eta horrek proiektua biribiltzen zuen.

OIHANE: Soniak, ostera, Gizarte Langile bezala egin izan du lan, gorputza kanpotik zaintzeko tratamendu naturalak ematen ditu eta, horrela, bakoitzak bere ekarpenak eginez, zerbitzu integrala eskaintzeko aukera ikusi genuen.

Idea edukizetik proiektua martxan jarri arte, nolako pausoak eman behar izan dituzue?

SONIA: Bide horretan pixka bat bakarrik sentitu gara. Ni eszedentzian nengoenez



Oihane eta Sonia. SUSTRAI

eta Oihane beste lan batetan, ez genuen dirulaguntzarik jasotzeko aukerarik izan. OIHANE: Ekonomikoki laguntza gutxi jaso dugu.

Egoera horretan, nola egin ahal izan duzue aurrera?

SONIA: Urratsbaten papera berebizikoa izan da eta, noski, baita jaso dugun aholkularitza zerbitzua ere.

OIHANE: Nahiz eta langabezian ez egon, ekintzaileentzako formakuntza jasotzeko aukera izan dut Urratsbati esker: proiektu bat nondik hasten den ikusi, proiektu ekonomikoa nola egin... Egiten ari ginena ondo zegoen ala ez jakiteko balio izan digu.

Nola egin zenuten bat Urratsbat programarekin?

OIHANE: UNIK bertako ikasleen eta ikasle ohien eskura jartzen duen programa da Urratsbat. Nik batxilergoa egin nuen han eta horregatik izan dut programan parte hartzeko aukera. Edozein laguntza ondo zetorkigun sasoi hartan.

Zein pauso jarraitu dituzue Urratsbaten barruan?

OIHANE: Hasieran, proiektua zein egoeratan zegoen aztertu zuten eta, horren arabera, bidea egiten hasi ginen, gure beharretara egokituz. Gainera, Urratsbategiaren ekintzaileentzako plataforma bat du eta saretzeko balio izan zigun. UNIKo koordinatzailearekin etengabe egon gara harremanetan eta gure proiektuarentzat lagungarriak izan daitezkeen gauzen berri eman digu: dirulaguntzak, formakuntza, kanpo-harremanak, hedapena...

Zein izan da bidean aurkitu duzun zailtasunik handiena?

SONIA: Bezero berriak sortzea. Horretarako, ahoz aho eta sare sozialen (Google, Instagram...) bitartez eman dugu gure proiektuaren berri.

OIHANE: Hala ere, zaila da zentroan egin beharreko lana egiteaz gain sare sozialak kudeatzea, denbora behar da eta lanketa egokia eskatzen du. Ahoz ahokoak ondo funtzionatu digu.

Orain dela urtebete jarri zenuten martxan Sustrai. Zer sentitu zenuten?

OIHANE: Oraindik bertigo pixka bat dugula esango nuke. Hasieran proiektua modu batean definitu arren, beti gabil-tza hobetzeko asmoz. Beraz, erabakiak hartzeko orduan beti dugu zalantza hau: Ondo egiten ari gara, ala ez?

SONIA: Inoiz ezin zara lasaitu, beti egon behar zara hurrengo pausoa pentsatzen. Adibidez, aipatutako soziohezkuntza proiektua martxan jartzeko, lan asko egin dugu aurretik.

OIHANE: Ideia berriak eduki arren, gure esentzia ez galtzen saiatzen gara. Beraz, behar berriei egokituko gara gure oinarriak galdu barik.

Nolakoa izan da Sustrairen hasierako urtea?

SONIA: Orain ari gara ikusten urtebete-ko lanaren fruitua. Hasieratik esan zigituen urtebete inguru itxaron beharko genuela lehen bezeroak egiteko eta horrela izan da. Aurrera egiteko gogo askorekin gaude.

Urratsbat bidelagun duzue oraindik?

OIHANE: Eurekin harremanetan jarraitzen dugu. Guretzat probetxugarriak izan daitezkeen gauzen berri ematen jarraitzen dute eta eskertzen da. Laguntza hori eduki barik zaila da gauza batzuen berri izatea.

"Hasieran, proiektua zein egoeratan zegoen aztertu zuten eta, horren arabera, bidea egiten hasi ginen, gure beharretara egokituz"

"Gure helburuetako bat ekintzaile gehiago gerturatzea da, eta horretan dihardugu"

LEIRE BERASALUZE EKingUNE ELKARTEKO PRESIDENTEA



Leire Berasaluze.

Hainbat jardueratako 32 ekintzailek (Arrasaten dago bat eta Debabarrenean gainontzekoak) osatzen duten Ekingune elkarteak 10. urtemuga du aurten. Iaztik lehendakari karguan diharduen Leire Berasaluze Amuategi eibartarrak eman digu elkartearen jardunaren berri.

Ekintzaileen arteko lankidetzeta eta sustapenerako elkarte da zuena. Nola egiten duzue lan lerro nagusi horietan?

Elkartekide guztiok gara ekintzaile; batzuk beharrak bultzatuta, beste batzuk beren ametsetako ideia martxan jarri nahiari jarraiki. Kideetako batzuk urte nahikotxo daramatzagu ekin genionetik, edo ekiten hasi ginenetik, eta gure betebeharra hasiberriei laguntzea da, haien lana sustatzea.

Askotan elkarrekin egiten dugu lan, proiektu beraren atal guztiak kideen artean estaliz. Gainera, gure bezero batek elkartekide baten zerbitzuen beharra izanez gero, kontaktuan jartzen ditugu.

Halaber, guretzat oso garrantzitsua da networking-ak egitea, beste elkarte batzuekin, edo nahi duen autonomo edo enpresari ateak ireki eta norbere produktua edo zerbitzua ezagutzera eman eta sinergiak lortzea. Berriz ere hasi gara halako bilerak egiten eta espero dugu pandemia aurreko mailara itzultzea.

Zer baliabide eskaintzen diezue ekintzaileei?

Ekitea polita izan daiteke, baina baita nekeza ere. Gure xedea ekiten duzunean erorikoen aurkako "sare" hori ehuntzen laguntzea da. Baliteke zure ideia ona izatea, baina beste hainbat gauza behar izaten dira. Laguntzak egoten dira ekiteko, baina behin enpresa martxan, nola lortu lehen bezeroa, nola egin aurre ziurgabetasunari, nola saldu? "Soft skills" deritzen gaitasunak ere faltan izaten ditugu askotan. Horietan treba-

tzeko baliabideak ematen ditugu, eta horiekin lotutako ekitaldiak antolatzen ditugu.

Askotariko ekimenak egiten ditu Ekingunek. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Batetik, AurreraEkin proiektua, ekin aurretik, gure burua aztertu eta ekitea egokia den ala ez, edo zein gaitasun hobetu beharko ditugun eta horiek nola landu hausnartzen laguntzen duena. Bestetik, OnEkin negozio-ideien lehiaketa dugu; gaur egun enpresa sendoak diren askok irabazi dute OnEkin saria: Arkigreen, Fixme, Kaxa, Eibarrooms, ScrapAd...

Horiez gain, Hamarretakoak Ekingunerekin egiten ditugu hilero, ekintzaile gisa interesatzen zaizkigun gaiei buruzko hitzaldi baten ondoren, hamarretakoan networking-a eginez. Eta Marketing Day eguna, emakume ekintzaileei zuzendutako Womenekin, Fuck-up Day delakoa (porrotak beste modu batean ikusteko) edo GabonEkin eguna (gabon bazkariarekin) ere baditugu. Adituak eta esperientziadunak gonbidatzen ditugu horietara.

Ekintzaile gisa, zein dira aurre egin behar izaten zaien zailtasun nagusiak?

Betidanik izan da arazoa lehenengo bezeroak lortzea; esperientziarik ez baduzu, bezerorik izan ez baduzu, zaila izaten da jendeak zugan sinestea. Enpresa handien ondoan, gehienbat. Gaitasun edo trebezia batzuk ere garatu

"Ekitea polita izan daiteke, baina baita nekeza ere. Gure xedea bide horretan laguntzea da"

behar izaten dira: likidezia falta, nola aurkeztu zure burua besteen aurrean, nola saldu zure produktua... zalantza betetako bidea da.

Eta onurak edo abantailak?

Uste dut bakoitzak bere esperientziaren arabera erantzungo diola galdera honi. Nire kasuan, aukera eman dit proiektu desberdinak aurrera ateratzeko eta nolabaiteko malgutasuna izateko nire bizitzan; lorpenak ere gehiago ospatzen dituzu. Hogei bat urte daramatzat itzulpengintzaren munduan; zazpi urte dira Sare Translations sortu nuela, eta aurten Sare Contents eratu dugu, itzultzeaz gain edukiak sortzeko.

Bizimodu bat da ekintzaile izatea, abentura. Nik ez dut nire burua ikusten zortzi orduz makina baten aurrean "jo eta su" egunez egun. Erroak behar ditut.

Nola dago ekintzailetza eskualdean? Osasuntsu dago sektorea?

Ez da une ona, baina besteentzat lanean dihardutenentzat ere ez, ezta? Zalantza beteta dugu etorkizuna, denok. Gure helburuetako bat ekintzaile gehiago gerturatzea da, eta horretan dihardugu.

Hamar urte betetzen ditu Ekingunek. Nola irudikatzen duzue elkarte he-mendik hamar urtera?

Ekintzaile guztiok bezala, aurrera ateratzeko borrokan jarraituko dugu. Gu geu ekintzaileak gara eta denon onerako da eskualdearen enpresa-egoera eta, oro har, egoera ekonomikoa sendoa izatea. Beraz, beren enpresa edo proiektua martxan jarri dutenei edo jartzera doazenei eskua luzatu nahi diegu elkarrekin urrunago iristen laguntzeko.

Urteurrena ospatzeko ekimen berezirik egingo duzue?

Bai, urte berezia izango da. OnEkin sariak bereziak izango dira, bazkideentzat ere ekintza bereziren bat prestatuko dugu... Gonbidatuta zaudete.

Emakumeak lan munduan barneratzeko

EMEKIN EGITASMOA

2007an jarri zuten martxan Emekin programa Foru Aldundiak, Aspegi elkarteak (Emakume Profesional eta Enpresarien Gipuzkoako Elkarteak) eta Laboral Kutxak, Europako Gizarte Funtsak % 50ean finantzatuta. 15 urte beteko ditu aurten programa honek. Programa honen atzean hainbat aholkulari ere badaude, emakumeei lan mundurako ibilbidean laguntzeko, eta horietako bat da Eibar-ko Somos Asesores enpresa. Bertako Jaione Moreno hasiera-hasieratik inplikatu zen Emekin programan, eta berak eman dizkigu egitasmoari buruzko azalpenak.

Emakumeak gero eta gehiago barneratzen dira lan munduan, baina hala ere, gizonezkoen aldean asko dira oraindik etxean geratzen diren emakumeak. Kontziliazioa eta zaintza emakumeen ardurak dira gaur-gaurkoz, eta egoera hori apur bat irauli nahian dabilta erakundeak. 2007an, esaterako, Emekin programa jarri zuten martxan. Negozio ideia bat duten emakumeei zuzendutako programa da, eta, bere helburua da Gipuzkoan enplegua sortzea, emakumeek martxan jarritako enpresa proiektuak bultzatuz. Honenbestez, enpresa proiektu bat duten eta hura abiarazi nahi duten emakume guztiak izan daitezke programaren onuradun. 35 urtetik gorako emakumeei zerbitzua emateko asmoz jaio zen Emekin, eragileek ikusi zutelako garai hartan adin horretatik gorako emakume asko zeudela etxean, eta lan munduan eskulana behar zela. Behar horri erantzuteko, emakume horiek etxetik atera eta lan mundura erakarri behar zirela ikusi zuten. 2007tik 2013ra arteko egitasmoa zen hasieran, baina emaitza "onak" ikusita, egitasmoarekin jarraitzea erabaki zuten. Gaur egun martxan dago oraindik, eta gainera, emakume ekintzaile guztiak hartzen ditu orain, adina kontuan hartu gabe.

1.189 lanpostu berri

Jaione Moreno Somos Asesores aholkularitzako kidea da, eta sorreratik egon da Emekin egitasmoari oso lotuta. Hasierako etapa hartan hogeitaholokulari homologatu zeuden programa honi lotuta, baina gaur egun gehiago dira. Morenok hainbat prestakuntza saio egin



zitzen emakumeei lagundu ahal izateko, eta azaldu duenez, urte hauetan emakume askori eman die zerbitzua. Enpresa "asko" jarri dituzte martxan Debabarrenean Emekin programari esker: Ile-apaindegia, online bidezko salmenta plataformak, tabernak, okindegi-gozotegiak, edergintza zentroak... Lehen hamarkadako (2007-2017) datuen arabera 1.591 emakume prestatu dituzte Emekin programaren barruan ekintzailetzarako trebetasunetan; 849 enpresa berri abiatu dituzte, eta 1.189 lanpostu berri sortu dira. Hamar urte horietan sortutako enpresen artetik % 55,59 zerbitzuen sektorean ari dira, % 35,55 merkataritzan, eta % 8,86 ostalaritzan. Enpresa berrien kokalekuari begiratuta, emakumezko ekintzaile gehien Donostialdean daude (% 38,08). Debabarrenean, enpresen % 4 sortu dira, Foru Aldundiak emandako datuen arabera. Jaione Morenori egitasmo "ona" iruditzen zaio Emekin.

50 orduko aholkularitza

Emekinen barruan hiru aholkularitza zerbitzu eskaintzen dira: hasierako orientazioa, erabakitzeko laguntza eta jarraitpena. Lehenengo fasean 25 orduko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute, eta horren barruan, bideragarritasun plana egiten da: "Bideragarritasun plana egitea ez da erraza izaten, gehienetan salmenta kopurua estimazio bat izaten delako, eta plan hori ondo egitea oso garrantzitsua da". Bideragarritasun planean kostu eta sarrerak kalkulatu behar dira:

"Hamar urtean 849 enpresa berri jarri dituzte martxan Gipuzkoan Emekin egitasmoari esker"

begiratu behar da inguruan dagoen konpetentzia, baita ere egunero enpresa horren pertsiana altxatzeak duen kostua... "Bideragarritasun plan on bat da enpresa berri baten oinarria". Hasierako fase horren ondoren, eta bideragarritasun plana eginda dagoenean, beste 25 orduko aholkularitza zerbitzua eskaintzen zaio ekintzaileari, burokrasia fiskalarekin laguntzeko. "25 ordu ez da asko, baina uste baino gehiagorako ematen du". Azkenik, enpresa horiei jarraitpena ere egiten zaie.

Ekintzailea izatea beti da "interesgarria", baina gaur egun egoera ez da erraza: "Garai batean enpresa bat martxan jarri eta ia beti ondo joaten zen, baina gaur egun ez da horrela izaten". Hala ere, emakumeentzako bereziki ekintzaile izatea eta negozio propioa martxan jartzea irtenbide ona dela uste du Morenok. Ekintzaile izateak ideia bat eduki eta hori gauzatzea dakar berarekin, eta horrek baditu bere arriskuak ere, baina gehiago dira onurak, eragozpenak baino: "Ekintzaile izateak esan nahi du ideia horrekin pentsatzen egotea etengabe, baita lan jarduna amaitu ostean ere". Zailtasun eta arrisku guztiak kontuan hartuta ere, ekintzaile izatea lan munduan barneratzeko aukera interesgarria da.

Kontaktua

Emakumea bazara eta Gipuzkoan zure enpresa ideia martxan jarri nahi baduzu, hona hemen Emekin egitasmoarekin harremanetan jartzeko bideak:

- emekin@gipuzkoa.eus
- Doako telefonoa: 900 701 132



Nagore Martin Landaola sariarekin.

"Ni pozik nago baina oinak lurrian izan behar dira eta egoera ez da batere erraza"

NAGORE MARTIN LEHEN SEKTOREKO EKINTZAILEA

V. Landaola Sarien baitan, aurten, Emakumeak Landa Eremuan saria Nagore Martini eman diote. Ahuntzaina da Martin eta haien esnearekin Egotzako gazta ekoizten du, Soraluzen. Kaletik landa eremura joan den emakumezko ekintzailea da Nagore Martin.

Pozik sariarekin?

Bai. Oso pozik.

Zu saridun aukeratzeko baloratu dute baserriarekin loturarik izan ez arren, kemena izan zenuela hirigunetik baserrira joan eta abeltzaintza eta gaztagintza ogibide bihurtzeko. Zure ustez kemen handia behar da?

Bai. Gauza askorekin kezka handia nuen: jakitea ea produktua salduko duzun, zelako inbertsiotan sartuko zaren... Baina askotan, hobeto da ez pentsatzea, bestela ez duzulako aurrera egingo.

Zelan erabaki zenuen aurrera egitea? Banekien hau nahi nuela, oso gustuko dut bizimodu mota hau. Bizitzako gau-

za guztiak moduan, argi izan behar da, baina argi baldin baduzu, pausoa eman egin behar da.

Izan zenuen aholkularitzaren bat?

Ez. Nik nire kabuz egin nuen dena, Onarekin (senarra) batera.

Eta bestelako laguntzaren bat izan zenuen?

Artzain Eskolan lagundu zidaten. Umea motxilan hartu eta hara joan nintzen nire ideiarekin. Han esan zidaten oso argi nuela zer nahi nuen eta Batisekin hasi nintzen bideragarritasuna aztertzen.

"Gauza askorekin kezka handia nuen, baina askotan hobeto da ez pentsatzea, bestela ez duzulako aurrera egingo"

"Negozio motaren arabera, errazagoa edo zailagoa da ekintzaile izatea; orain egoera zaila bizi dugu"

Zer esango zenieke ekintzaile izatea burutik pasatu baina pausoa ematera ausartzen ez diren horiei?

Egia esan, orain urte batzuk esango niekeen nahi dutena egiteko eta aurrera jarraitzeko. Baina egia da bizi garen gizarte honetan zaila dagoela egoera. Beste balore mota eta eros ohitura batzuk daude. Negozio motaren arabera, errazagoa edo zailagoa izan daiteke.

Erosoagoa da beste norbaitendako lan egitea?

Gaur egun badirudi baietz, baina ez nik hori sinisten dudalako baizik eta jasan behar dugun burokraziak eta agintariak oso konplikatuak egiten dutelako ekintzaileon jarduna. Niri berdin zait 16 ordu lan egin, txarren burokrazia kontuak daramatzat. Benetan gustuko dut egiten dudana baina penagarria da horren informazio gutxirekin kudeatzea nekazaritza mundua eta gauzak erabakitzea gurekin batzarrak egin barik.

Hala ere, erabakia hartu zenuenetik 9 urte pasata, esango nuke ez zarela damutzen batere...

Ez. Nire familia, seme-alabak nik haztea eta haiei erakustea eguzkiarekiko, naturarekiko, lurrarekiko eta animaliekiko maitasuna oso garrantzitsua iruditzen zait. Dena den, ni pozik nago baina oinak lurrian izan behar dira eta egoera ez da batere erraza. Ni pozik nago gauzak poliki-poliki egin ditudalako.

Gainera, emakumea zara; horrek eka- rri dizu eragozpenik?

Ni hasi nintzenean, lehen ikasturtean dena ziren gizonak, ahuntzaingintzan. Baina nire kasuan ez naiz gutxiago sentitu eta ez naute okerrago tratatu. Gainera, gaur egun ni naiz elkarteko presidente. Ahuntzai du izena elkarrekin.

Besterik gaineratu nahi baduzu...

Nahiko nuke jendea kontzientziatzea lehen sektorearekin. Oso garrantzitsua da zer jaten dugun, jaten duguna gara.

"Hasi nintzenean denak ziren gizonak, baina ez naiz gutxiago sentitu eta ez naute okerrago tratatu"



Turismorako zein enpresen beharretara egokitutako hotel estrategikoa

Urteetan Azitain gainean ikusi izan dugun etxeak hartu du bizia: Hiru izarreko Arriarte hotela zabaldu dute bertan, eta berehala zabalduko duten erretegia ere izango du. Punta puntako azpiegiturak dauzka bezeroei eskaintzeko, eta turismorako zein enpresen beharretarako prestatuta dago. Iker Salgadok kudeatuko du hotela, eta Salua Srassi da proiektu berri eta berritzaile honen ardura hartuko duena. Hotela zabalik dago, eta jatetxerako erreserbak egiteko aukera ere zabalik dago.

Ireki berri duzue Arriarte hotela. Zein ezaugarri ditu?

3 izarreko hotela da. Eibarren dago kokatua, Azitainen, autopista sarreratik bertan. Kokaleku estrategikoan dago, izan ere Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen erdian kokatuta dago, eta hirurak distantzia berera daude, gutxi gorabehera.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue Arriarte hotelean?

Turismorako hotela izan daiteke, batetik. Bere kokalekuagatik oso egokia izan daiteke Euskal Herria ezagutu nahi dutenentzat. Autopistaren sarrera bertan dago, eta hortik edonora joateko aukera dago, turismoa egitera. Era berean, garraio publikoa erabiltzeko aukera badago Eibarren, trena edo autobusa, esaterako. Baina turismoaz gain, Azitain industrigunea oso gertu daukagu, eta gunee horretan enpresa asko daude. Inguruko herrietan ere industria asko dago, eta langile asko etortzen da kanpotik. Jende horri ostatu emateko ere prestatuta dago gure hotela. Lanera datozenentzako batzar gela bat ere badu hotelak. Argi naturala dauka gela horrek, eta teknologikoki ondo hornituta dago, langileen beharrak asetzeko. Enpresen edozein ekitaldi ospatu daiteke gela horretan, aurrez erreserba eginda. Gainera, topaketa horietarako catering zerbitzua ere eskaintzen dugu.

Zein azpiegitura ditu hotelak?

15 logela ditugu, espazio zabalekoak. Logela bakoitzak 14-21 metro koadro ditu, eta bezeroaren behar guztiak asetzeko hornituta daude: Wi-Fi konexioa dute gela guztiek, dutxa, ile lehorgailua, aire egokitua, telebista... Gure helburua bezeroa eroso sentitzea da. Nabarmendu

nahiko nuke gela guztiak intsonorizatuta daudela, bezeroek inolako zaratarik gabe atseden har dezaten. Horrez gain, gosaria, hamaiketako, bazkaria eta afaria ere eskaintzen ditugu. 24 orduko harrera zerbitzua daukagu hotelean, bezeroak lasai eta presarik gabe etorri ahal izateko. Badakigu gaur egun jende askok bakarrik bidaiatzen duela, eta horietako askok maskotak dituztela; beraz, animaliak ere onartzen ditugu hotelean. Hotelaren ingurunean animaliekin gozatzeko aukera handia eskaintzen du gainera; beraz, hemen gustura egongo dira animaliak eta jabeak.

Ostatu hartzen ez duena joan daiteke jatetxera?

Bai, jakina. Hotelaz gain, erretegia ere zabalduko dugu, eta ibilbide profesional handia daukan sukaldaria izango da arduraduna. Kalitatezko osagaiekin, kalitatezko otorduak eskainiko ditugu. Kalitatezko lehengaiak eta parrilla izango dira gure ezaugarri nagusiak. Erretegi menua eskainiko dugu, baina, horrez gain, eguneroko menuak eta menu bereziak ere prestatuko ditugu, eta karta ere izango dute bezeroek aukeran.

Ospakizun handietarako prestatutako jatetxea izango da?

Bai, ezkontzak eta bestelako ekitaldiak ospatzeko prestatutako jan-gela daukagu. Bi terraza handi ditugu bezeroen eskura: lehenengoa inaugurazio egunean bertan erabiltzeko moduan izango dugu, baina bigarrena oraindik prestatzen ari gara. *Chill out* estiloko terraza prestatu nahi dugu, bezeroei gunee are bereziagoa eskaintzeko.

Erredakzioaren oharra:

*Ekimenak COVID-19ak eragiten duen egoeraren baitan egongo dira, beraz, aldaketak egon daitezke programazioan.

MARTXOAK 25, OSTIRALA

-19:00. Menopausiari buruzko **kafe-tertua**, Agirre jauregiko Ispiluen gelan.
-20:00. **Musika kontzertua**: Esti eta Mikel Markez, Kultur Elkarteko aretoan.

MARTXOAK 26, LARUNBATA

-Goizean zehar (27an ere bai): **bigarren esku-ko azoka** udaletxe azpian, Ukrainaren alde.
-13:00. Ukrainaren aldeko kultur **emanaldia**, herriko taldeen eskutik, Debako elizan.

MARTXOAK 27, IGANDEA

-19:00. **Zinema**: "El buen patrón", Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

MARTXOAK 30, ASTEAZKENA

-19:00. **Irakurketa kluba**: "Izarak" (Goizane Aizpurua), Ostolaza liburutegian.

APIRILAK 2, LARUNBATA

-8:00. **Irteera**, Baztango Xurie Upategira eta Amaiur Gaztelura bisita (Arrano Elkartea).
-10:45. **Deba XXXI. Txirindularitza Saria** lasterketa (1. eta 2. urteko kadeteak).

APIRILAK 3, IGANDEA

-19:00. **Zinema**: "Pequeño país", Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

APIRILAK 4, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, plazan.

APIRILAK 7, OSTEGUNA

-23:54. **KORRIKA BADATOR!** (Informazio gehiago 12-13 orrialdeetan).

APIRILAK 9, LARUNBATA

-12:30. **Barra klasikoaren erakustaldia**,

Kulunkaren eskutik, ibaiko pasealekuan.

-19:00. **Kontzertua**: Zarautz Abesbatza, Itziarko elizan.

APIRILAK 10, IGANDEA

-19:00. **Zinema**: "Sólo las bestias", Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

APIRILAK 23, LARUNBATA

-Goizean, **liburu azoka** Kultur Elkarteko plazan (Liburuaren Egunaren harira antolatuta).
-12:00. **Mikro irekia eta bermouth literarioa**.

APIRILAK 24, IGANDEA

-19:00. **Zinema**: "En un lugar al sol", Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

APIRILAK 25, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, plazan.

Dagigun partaidetza prozesua

-Dagigun zumardiari buruzko partaidetza prozesuaren emaitzak martxoaren 29an aurkeztuko dira, baita proposamenak egin ere. Ekitaldia udaletxeko pleno aretoan egingo da, 18:30ean.

Euskal artista bisual berrien lehiaketa

-Lehiaketaren helburua artista bisual berriak sustatzea izango da, eta erakusketa bat antolatzea Santa Maria elizako kalostran, uztailean. Izen-ematea, apirilaren 30era arte. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

XV. Animadeba Zinema Jaialdia

-Irailaren 7tik 10era egingo da Animadeba Animaziozko Nazioarteko XV. Zinema Jaialdia Deban eta maiatzaren 1ean amaituko da film laburrak aurkezteko epea. Informazio gehiago: www.animadeba.com.

...eta Debabarrenean zer? Eskualdeko hainbat plan interesgarri

MARTXOAK 25, OSTIRALA

Ernuua
-17:00/19:00. **Ikuskizuna**: Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Kuikui*, Antzokian.

MARTXOAK 27, IGANDEA

Elgoibar
-19:00. **Kontzertua**: "Islabat" Kultur Etxeko sotoan. Sarrera, 5 euro.

MARTXOAK 31, OSTEGUNA

Eibar
-19:00. **Ikus-entzunezkoa**: "Espectru" bat *motxilan* (Josu Torrealday). Portalean.



ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: martxoak 25, 26, 27, apirilak 4, 5, 6, 7, 22, 23, 24.

Burgoa Zuazo: apirilak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI | 669 262 201
BURGOA ZUAZO | 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: martxoak 26 / apirilak 2
BURGOA ZUAZO: apirilak 9 / 16



**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12



2022-23 ikasterterako Batxilergorako Onarpena.
Martxoaren 28tik apirilaren 8ra (on-line zein ikastetxean)

BATXILERGOA



**GIZARTE ZIENTZIAK
HUMANITATEAK**

**Giza eta
Gizarte
zientziak**



**OSASUN ZIENTZIAK
ZIENTZIAK ETA TEKNIKA**

Zientziak



**ARTISTIKO
MUSIKALA**

Artea



**BATXILERGO
OROKORRA**

Orokorra





Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea, bestelako espezialitateak



BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENEKO ETA ONLINE SALMENTA



Zuzeneko salmenta ohiko ordutegia

Astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00. Larunbata: 10:00-13:00.

Aste Santuetako ordutegi berezia

Apirilak 11,12,13 eta 19,20,21,22: 10:00-14:00 eta 17:00-19:00.

Apirilak 16 eta 23 (larunbata): 10:00-13:00.



Sarean erosi:

www.yurritagastronomika.com



sarean edota dendan erosteagatik
% 10eko deskontua
kupoi hau aurkeztuz



FABRIKAKO PREZIOETAN

50€tik gorako erosketetan
%10eko deskontua egingo da
apirilean zehar.



ETXERA BIDALIKO DIZUGU

Ondorengo kupoia sartu online
erosketa egitean: BERRIKETAN
(ekainak 15 arte erabilgarria)